

BIZIKIDETZA PLANA

SAN IGNACIO DE LOYOLA IKASTETXEA

BERRIKUSKETEN HISTORIKOA				
ZK.	DATA	ALDAKETEN DESKRIBAPENA	NORK EGINDA	NORK ONARTUA
1	2012/06/22	Bizikidetza-plana sortu.	Z.T.	Eskola kontseiluak

Nork eginda: Zuzendaritza Taldea Sinadura: Data: 2012.06.22	Nork onartua: Eskola Kontseilua Sinadura: Data: 2012.06.22
--	---

AURKIBIDEA

1. Bizikidetza-planaren beharra	1
2. Ikastetxearen eta bizikidetza-egoeraren analisia	2
3. Bizikidetza-planaren helburuak	4
4. Bizikidetzaren Behatokia	8
5. Gatazkak modu baketsuan konpontzeko aurreikusitako ekintzak	9
6. Araudiak	11
7. Gatazken prebentzioa eta kudeaketa	29
8. Adiskidetza eta kalteak konpontzea. Bitartekaritza eta konpromisoak	32
9. Neurri konpontzaileak eta zuzentzaileak	33
10. Antolakuntza	53
11. Bizikidetza eskolako curriculumean	62
12. Eranskinak	73

1. Bizikidetza-planaren beharra.

Ikastetxeko hezkuntza-jarduera modu egokian gauzatzeko, bizikidetza oinarri-oinarrizko da. Gure hezkuntza-jardueraren helburua errespetuz, laguntasunez eta elkartasunez jokatuko duten gizon-emakumeak heztea da, jarrera pertsonal, kontziente, kritiko, errukitsu, konprometitu eta askean arituko direnak. Hori da senidetasun-gizarte zuzena lortzeko bidea, bai eta herritarren artean sor litezkeen gatazkak elkarritzetara joz eta modu konstruktiboan konpontzekoa ere. Egoera ideal hori lortzeko, guztiok egin behar dugu lan, etengabe eta ondo bideratuta; horrela lagunduko diegu gure ikasleei beren gaitasun eta ohiturak garatzen, eta komunitatea osatzen duten guztiiek erabateko errespetuz jokatzen.

Errespetua, izan ere, bizikidetzaren oinarrizko postulatua da. Errespetuzko jarrera izatea funtsezkoa da gatazka guztiak konpontzeko. Besteen behar eta helburuak aintzat hartzearekin lotuta dago, eta horiek lortzen laguntzeko daukagun ahalmenarekin. Errespetuzko giroan, errazagoa izaten da Ikastetxearen funtzionamendurako ezarrita dauden arauak eta prozedurak betetzea, jarduera akademikoa irakaskuntza emankorrerantz bideratzea, ikasleen ezaugarri eta gaitasunetara egokitzea, aniztasuna aintzat hartzea, jarrera egokitugabe edo disruptiboa onbideratzea, eta gatazkak konpontzea.

Gizakion arteko harremanetan, oro har, bi arazo mota sor daitezke: indarkeria eta gatazkak. Besteak errespetatzen ez dituztenek erabiltzen dute indarkeria; hau da, indar fisikoaren edo bestelako mekanismoen bidez, haien borondatea inposatzen dutenek edo inposatu nahi dutenek. Gizarte dinamikoetan, herritar kritikoek beren usteak defendatzen dituztenean, eta egoerak beren balio eta interesen arabera interpretatzen dituztenean, egunero sortzen dira gatazkak. Ekipinezina da hori, eta ona. Nolanahi ere, indarkeriari uko egin behar diogu. Askatasuna defendatzeko eta indarkeria baztertzeko, mekanismo eraginkorrik ezarri behar dira. Baino gatazkak ez dira arauen indarrez saihesten edo ezabatzen; gatazkak arrazionalki konpondu behar dira, ikuspegi ezberdinak alderatuz eta elkarritzetara joz. Gatazkaren adierazpen ohikoena jarrera egokitugabea edo disruptiboa da. Halako jokabideei dagokienez, onena horiek prebenitztea da, familien eta irakasleen hezkuntza-baliabideak bateratzen. Eta, prebentzio-lanak egin arren, sortu egiten badira, tipología eta zergatiak zehaztu behar dira, eta kasu bakotzerako egokienak diren neurriak hartu. Horretarako, buru-belarri eta elkarlanean aritu behar dute heziketako eragile guztiekin. Eta, eragile horien artean, garrantzi handiarekin gainera, ikasleek.

Dokumentu hau indarrean dagoen araudiaren aginduz sortu da, baina eskuliburu praktiko bat izan nahi du: bizikidetzarako helburu komunak eta gutxiengo arauak zehazten ditu, gatazka-egoerak hautemateko eta prebenitzeko tresnak eta mekanismoak, gatazkak konpontzeko prozedurak, eta hainbat eragileri zuzendutako oinarrizko gomendioak; guztia ere Ikastetxearen helburu orokorretan oinarritura, eta bizikidetza sendoagoa bultzatzeko xedez.

Zentroaren hezkuntza-jarduera hobetzena zuzendutako Plan hau behin-behineko tresna programatiko bat besterik ez da, berrikusgarria. Garrantziotsuena ez da Plana bera, bertan xedatutakoa betetzea baizik. Horregatik, ez dago arau modura formulatuta. Denek ulertzeko eta betetzeko moduko alderdiak azpimarratu nahi ditu, gure Ikastetxeko hezkuntza-bizitzaren muina hobetzen joateko.

2. Ikastetxearen eta bizikidetza-egoeraren analisia.

2.1– Ikastetxea eta ingurunea.

- Donostiako San Ignacio de Loyola Ikastetxea Jesusen Lagundiko itunpeko ikastetxe bat da, kristautasunean inspiratuta eta inguruneari irekita dagoena.
- Gure eginkizuna pertsona bakoitzari arlo intelektualean, afektiboan eta espiritualean hazten laguntzea da, hemengo testuinguru kultural eta soziala aintzat hartuta. Horretarako, gizartea eraldatzeko gaitasuna eta irrika pizten dituzten esperientziak eta aukerak eskaintzen dizkiegu ikasleei. Familien hezkuntza-lana osatzen dugu, gure hezkuntza-proiektuan beharrezko diren zerbitzuak txertatuz. Zeregin horretan, Loiolako Ignazioren espiritualtasunaren eta pedagogiaren bidez bizitako balio ebanjelikoak ditugu inspirazio-iturri.
- Ikastetxe honetan, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo etapak eskaintzen ditugu.
- Hezkuntza-maila bakoitzean, lau lerro dauzkagu, eta ikasleen aniztasunari erantzuteko taldeak; besteak beste, laguntza-taldeak, hezkuntza sendotzeko programak eta dibertsifikazio kurrikularra.

2.2– Bizikidetzaren egoera.

Gaur egun, bizikidetza-giro ona daukagu Ikastetxean. Ez da larritasun handiko arazorik. Dauden gorabeherak DBHko aurreneko kurtsoetan sortu dira nagusiki; ikasteko motibazio handirik ez duten ikasleekin, funtsean. Gatazka asko elkarritzetaren eta diziplinazko neurri arinen bidez konpontzen dira (jolas-ordurik gabe gelditzea, arratsalderen batean jardueraren bat egin behar izatea, eta abar.). Zenbaitetan, hala ere, indarrean dagoen araudiaren arabera, bestelako neurri batzuk hartu behar izaten dira. Batxilergoko etapetan, bestalde, gatazka gutxiago sortzen dira.

Zer da, zehazki, eskola-gatazka? Interes ezberdiniek talka egiten dutenean, gatazka sortzen da. Eskolaren eremuko gatazkei dagokienez, hiru ikuspegi bereizten ditugu:

- Batetik, irakasleari jarrera batzuen aurrean sortzen zaion kezka: disruptzia (euren jokabidearekin, eskola normaltasunez emateko eragozpenak sortzen dituzten ikasleak), errespetu falta, diziplina eza, puntualtasun eza, ahaleginik ez egitea, ikasketekiko arduragabekeria...
- Bestetik, kezka soziala: erasoak eta ekintza bandalikoak, bereziki.
- Hirugarrenik, ikasleen kezka: berdinen arteko tratu txarra, isolamendua.

2.3– Gatazka ohikoenen analisia.

Sortzen diren gatazka nagusiak honela sailka genitzake:

- a) IKASLEEN ARTEKO GATAZKAK: errespetu faltak eragindako gatazkak dira, hitzezko liskarrak, tratu desegokia, hitz itsusiak, irainak... Unean unekoak, errepikakorrik edota oso larriak izan daitezke.
 - Gatazka errepikakorrik: aipatutako ezaugarriak izateaz gain, pertsona isolatuta sentiarazten dutenak dira.
 - Oso gatazka larriak: eraso fisikoak edo hitzezkoak, apropos edota kide batekin adostuta egiten den bazterkeria, mehatxuak.
- b) HELDUEKIN IZATEN DIREN GATAZKAK: errespetu falta, hitzezko liskarrak, tratu desegokia, hitz itsusiak, irainak, desobedientzia, ondo ez esertzea, modu egokian ez janztea (ikasgelan, gorputz-hezkuntzako eskolan...). Atal honetan, hezkuntza-komunitateko kide guztiak sartzen dira: familiak, ikastetxeko langileak, jantokikoak, garbitzaileak, eta abar.
- c) IKASTETXEKO MATERIAL KOMUNAK EDO INSTALAZIOAK EZ ERRESPETATZEAGATIK EDO EZ ZAINTZEAGATIK SORTUTAKO GATAZKAK: instalazioak, material komunak, ikaskideen materialak, eta abar errespetatzen ez direnean sortzen diren gatazkak dira.
- d) IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDU ARAUAK EZ BETETZEAGATIK SORTUTAKO GATAZKAK: ikasgelara igotzean edo jaistean, jolas-orduetan eta eguerdietan, gailu elektronikoak une jakin batzuetan bakarrik erabiltzeko arauak urratzean, ikastetxera ez agertzean eta inolako justifikaziorik ez aurkeztean, puntuala ez izatean, ikastetxetik baimenik gabe irtetean, eta abar.
- e) EZ IKASTEAGATIK, ETXEKO LANAK EZ EGITEAGATIK EDOTA MATERIALA EZ EKARTZEAGATIK SORTUTAKO GATAZKAK.
- f) ESKOLAKO DIZIPLINAREKIN LOTUTAKO GATAZKAK: irakasleak isilik eta adi egoteko eskatzean, agindua ez betetzea, escolako erritmoa etetea, ikaskideen lana ez errespetatzea, eserlekutik baimenik gabe altxatzea, gelatik baimenik gabe ateratzea, danbatekoak ematea.

3. Bizikidetza-planaren helburuak.

3.1 – Helburu orokorrak.

- Ikastetxeen bizikidetza eta giro positiboa lortzea guztion ardura eta erantzukizuna dela aitortza, edonon eta edonoiz.
- Bizikidetza hobetuz eta hezkuntza-giro egokian aritz, irakasteko eta ikasteko lanak erraztu egiten direla konturatzea.
- Ikasleei beren buruari, ezaugarriei, aukerei eta mugiei buruzko irudi zuzena izatean laguntzea, euren jarduera (ikastetxekoa, aisiaaldikoa, harreman afektiboetakoa, eta abar) modu orekatuan bideratzeko eta beren ongizatea bultzatzeko.
- Ikastetxearen, familiaren eta beste erakunde batzuen arteko lankidetza sustatzea, konfiantzazko eta errespetuzko giroan.
- Arazoak prebenitzea, jarrera desegokiak hautemateko eta ekiditeko estrategiak landuz.
- Gatazkarik sortuz gero, bitartekari gisa jardutea, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

3.2 – Planak sustatu nahi dituen jarduerak.

- Bizikidetzaren gaia guztion ardurakoa dela onartzea.
- Pertsona guztien duintasuna eta berdintasuna aitortza eta errespetatza, edozein dela ere haien egoera, sexua, erlijioa, kultura, arraza, nazionalitatea, ideologia, eta abar. Diskriminazio mota oro baztertzea.
- Ikastetxeko bizikidetza-arauak errespetatza eta betetza, eta gelak nahiz materialak ondo zaindu eta erabiltza.
- Guztiok eskubideen eta betebeharren jabe garela ikusaraztea, eta muga batzuk errespetatu behar ditugula ulertaraztea.
- Pertsonen eta taldeen arteko gatazkak izan badirela aitortza, eta, horiek konpontzeko, elkarrikzetaren bidea indartzea.
- Noizbehinka erasoien eta jokabide disruptiboen inguruan izan ohi diren konplizitate-egoerak ekiditea, eta jazarpen, tratu txar, larderia, diskriminazio eta injustizia-egoerak salatzen ikastea.
- Gogatze ideologikora bideratutako hitzezko eta hitzik gabeko jokabideen aurrean, jarrera kritikoa hartzea, bai eta diskriminazioa (soziala, arraziala, sexuala, eta abar) eragiten duten edukien eta formen aurrean ere.
- Nork bere burua kontrolatzeko, baloratzeko eta hobetzeko moduak lantzea.

3.3– Aurreikusitako ekintzak.

3.3.1– Jarduera prebentiboak, oro har

- Hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektore guztiei Plana ezagutaraztea, berau aplikatzeko, segimendua egiteko eta ebaluatzeko. Horretarako, hainbat bilera izango dira (kide anitzeko organoak, organo pedagogikoak, gurasoen bilerak).
- Ikasleak eta familiak iradokizunen postontzia erabiltzera bultzatzea; bereziki, zalantzak edo beldurak dituzten ikasleek aukera izan dezaten Ikastetxeari pairatzen ari diren tratu txarren, erasoen, jazarpenen, larderiaren edo dena delakoaren egoera jakinarazteko.
- Balioetan heztekopan kanpainak egitea.

3.3.2– Tutoretza-ekintzak

- Ikasleak hezkuntza-komunitateko kide sentiarazteko eta integratzeko ekintzak egitea.
- Ikastetxea, hezkuntza-proiektua, egitura eta antolakuntza ezagutzeko aukerak zabaltzea.
- Barne-araubidea, «ikasleen eskubideak eta betebeharra», biziakidetzarako eta diziplinazko arauak, Bizikidetza-plana, prozedura, eta abar ezagutzera ematea.
- Bizikidetzen arloan gertatutakoak etengabe berrikustea, eta, gatazkak konpontzeko, ikasgelan elkarritzeta koordinatzea.
- Bizikidetza-arauren bat urratzen denean, gertaera dagokion zikloko koordinatzaileari jakinaraztea.
- Bizikidetza-arauren kontrako jokabideei, jazarpenari eta larderiari aurrea hartzearen, gurasoen eta Ikastetxearen arteko lankidetza sustatzea.
- Kasuaren eta/edo jarduteko prozeduraren arabera beharrezko denean, Orientazio Sailarekin kolaboratzea.

3.3.3– Irakasleen jarduerak, oro har.

Ebaluazio-saioetan, ikastearekin lotuta egon litezkeen arazoez gain, beste arloetakoak ere hautematen saiatuko dira: integrazioa, egokitzapena, jokabidea, jazarpena, larderia, eta abar, banaka nahiz taldean landu ahal izateko.

Irakasleek parte hartuko dute Plan honetan aurreikusitako jarduerak eta prozedurak ezartzeko prozesuan.

Ikasleen artean behatutako bizikidetza-arauen urrapenak, jokabide-nahasmendua, jazarpena eta larderia tutoreari eta/edo dagokion zikloko koordinatzaileari jakinaraziko dizkiote.

3.3.4– Orientazio Sailaren jarduerak.

- Plana hobetzeko eta aplikatzeko proposamenak egitea.
- Arazoaren ezaugarriak aintzat hartuta beharrezko denean, jokabide-nahasmendu, jazarpen eta larderia prozeduretan aholkuak ematea.
- Ahal den guzietan, hasierako ebaluaziorako eta ebaluazio arrunterako saioetan parte hartzea.
- Ahal den neurrian, tutoreen esku materialak, galdelegiak, dokumentuak, bibliografia, eta abar jartzea, Planeko jarduerak gauzatu ahal izan ditzaten.
- Tutoreen eta familien arteko harremanean kooperatzea.

3.3.5– Familien jarduerak.

- Plana ezagutzea, hainbat bideren bitartez: gurasoen bilerak, tutorearekin elkarritzetak, Eskola Kontseiluan, eta abar.
- Familiertzako prestakuntza-ekintzetan parte hartzea.
- Ikasleen eta familien eskura dagoen iradokizunen postontzia erabiltzea.
- Seme-alabek jokabide-nahasmendua badute, edota jazarpen- edo larderia-egoera pairatzen badute, tutoreari jakinaraztea, lehenbailehen ekiteko eta seme-alaben nortasunaren garapena ez kaltetzeko.
- Ikastetxeak seme edo alabari neurriren bat ezarri badio (bizikidetza-arauak urratu dituelako, edota jazarpen, eraso edo larderiaz jokatu dutelako), neurri hori betetzen laguntzea, jokabide horiek aldatzearren eta seme edo alabaren garapen positiboa bultzatzearren.
- Behar den guzietan, seme-alaben tutorearekin eta Ikastetxearekin kolaboratzea.

3.3.6– Helburuak betetzeko aurreikusitako ekintzak.

Helburuak betetzearren, hainbat tutoretza-ekintza planteatu ditugu, banaka zein taldean egitekoak.

Taldean landu beharreko multzoak hauek dira:

- 1- Osasunean heztea:
 - a. Ohitura osasungarriak: prebentzioa.
 - i. Sexualitatea: prebentzioa.
 - ii. Mendekotasuna: alkohola, tabakoa eta beste substantzia batzuk.
 - iii. Teknologia berriak, mendekotasun berriak.
 - iv. Anorexia eta bulimia.
 - b. Higienea.
 - c. Dieta orekatua.
- 2- Balioetan heztea:
 - a. Bakea.
 - b. Elkartasuna.
 - c. Boluntariotza.
 - d. Elkarbitzta.
 - e. Indar-lerroak.
 - f. Ignaziolar Astea.
 - g. Mugikortasuna.

- h. Teknologia berriak arduraz erabiltzea.
 - i. Lanerako eta ikasteko teknikak.
- 3- Adimen emozionala.
- 4- Orientazioa.
- 5- Trebetasun sozialak:
- a. Pertsonen arteko harremanak.
 - b. Ordezkarria hautatzea.
 - c. Soziograma.
 - d. Afektibilitatea.

Tutoretza pertsonalizatua:

- 1. Elkarrizketa.
- 2. Autoebaluazioa.

4. Bizikidetzaren Behatokia

Bizikidetzaren Behatokia Ikastetxeko bizikidetza kudeatzeko sortutako organoa da. Bi helburu ditu: harreman positiboak sustatzea eta elkarbizitza osasungarria bideratzea. Osaerari dagokionez, zuzendaritza taldearen, irakasleen, ikasleen eta familien ordezkarien osatzen dute Behatokia.

Eginkizunak

- Bizikidetza-plana prestatzea, abian jartzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.
- Estamentu guztien partaidetza bermatzea; ikasleena, batez ere.
- Elkar zaintzeko kultura bultzatzea, nor bere buruaz eta besteez arduratzea poztasun- eta aberastasun-iturri izan dadin.
- Ikastetxeko bizikidetza-araudia aztertzea, diagnostikoa egitea eta hobetzeko prozesuak txertatzea.
- Harremanak hobetzeko, gatazkak eraldatzeko eta bizikidetza osasungarria lortzeko, iritziak, iradokizunak eta proposamenak jaso eta bideratzea.
- Egunerokoan sortzen diren beharren eta gatazken aurrean jarduteko protokoloak proposatzea.
- Indarkeria eta tratu txar kasuak hautematea, egoerak aztertzea eta konponbidea lehenbailehen ematea, inor ez dadin egoeretan deitoragarrietan egon.

5. Gatazkak modu baketsuan konpontzeko aurreikusitako ekintzak

Arau orokor gisa, arazoak sortu diren eremuan konpondu behar dira, ondorengo alderdi hauek kontuan hartuta:

- a) Gatazkako partaideek konpondu behar dute gatazka; batez ere, hirugarrenen parte-hartzea derrigorrezkoa ez den kasuetan.
- b) Arazoa partaideen artean konpontzen ez bada, irakasle-tutoreak esku hartuko du.
- c) Ondoren, kurtsoko edo zikloko koordinatzaileak, bai eta bere ustez egoki denak ere. Jokabide-nahasmendua dagoela iruditzen bazaio, hurrengo pausora joko du.
- d) Kurtsoko edo zikloko koordinatzaileak bizikidetzaren kontrako jokabideen berri emango dio **Bizikidetza Batzordeari**. Etapako koordinatzaileak, zikloko koordinatzaileek eta idazkariak osatzen dute batzorde hori. Bertan, ikaslearen jokabidea baloratuko dute, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaile bat proposatuko.
- e) Azkenik, Bizikidetza Batzordeak ikastetxeko zuzendariari aurkeztuko dio egoera.

Jardunbidea

Tutoreak

Ikasturteko aurreneko egunetan, tutoreek harrera-prozesuan zehaztutako planari jarraituko diote. Lehenengo egunean, ikasle bakoitzari dagokion etapako araudiaren kopia emango dio. Tutoretzako aurreneko saioetan, ikasleen arteko bizikidetza sustatzearen garrantziaz jardungo dira.

Tutoreek astero kontrolatuko dituzte euren taldeko gorabeherak, tutoreen taldean komentatuko dituzte, eta ahalegin berezia egingo dute bizikidetzaren kontrako jokabideak prebenitzen saiatzeko. Tutoreak bizikidetzaren kontrako jokabideren bat hautematen badu, dagozkion neurriak hartuko ditu: konpontzen saiatusko da –jokabide arinen kasuan– edota kurtsoko edo zikloko koordinatzaileari jakinaraziko dio.

Irakasleak

Irakasleek, aurreneko egunetan, argi eta garbi azalduko dizkiete ikasleei ikasgelan zuzen jokatzeko arauak zein diren, eta zein jokabide onartuko ez dituzten: ikasgelan hitz egitea, materialik gabe joatea, baimenik gabe altxatzea, litxarreriak jatea, ikaskideei hitzez edo fisikoki eraso egitea –«txantxetan» izan arren–, eta abar. Era berean, ohitura eta balio positiboak sustatuko dituzte: besteak entzuten eta errespetatzen jakitea, instalazioak zaintzea, elkarren artean ikastea, talde-espirituia izatea, erasoak jasaten dituztenei laguntzea, eta abar. Funtsezko da aurreneko egun horietan bizikidetzaren oinarriak erakutsi eta finkatzea. Horretarako, irakasleak berak arduratu beharko du ikasgelan ordena eta diciplina zaintzeaz, betiere lehentasuna ikasleek prestakuntza integrala jasotzeko daukaten eskubideari emanez.

Gatazkaren bat sortzen denean, eta ikaslearekin hitz egitea arazoak konpontzeko nahikoa ez denean, irakasleek baliabide hauek erabili ahal izango dituzte:

- Irakaslek ikasgelan sakabanatzea.
- Irakasleei ikasgelan edota ikastorduetatik kanpo ekintza zuzentzaileak eginaraztea, eta

ondoren ekintza horiek gainbegiratzea.

- Ikasle batzuei jolas-ordura joateko aukera kentzea, eta bitarte horretan ikasgelan egonaraztea, hezkuntza-lanak eginez, irakaslea ondoan dutela.
- Tutoreari, idatziz, ikaslearen jokabidearen berri ematea.

Ikasleak eta gurasoak

Ikastetxeko arauak errespetatu beharko dituzte.

6. Araudiak eta erregelamenduak

San Ignacio de Loyola Ikastetxea osatzen dugunon iritzian, nahitaez behar dira bzikidetza-arauak. Arau orokorrak etapa bakoitzeko arau berezien oinarri dira, eta alderdi hauek jorratzen dituzte: jokabide orokorra, bertaratzea, puntualtasuna eta gizalegea.

6.1 – Araudi orokorra

Hona hemen arau orokorrak:

6.1.1 Jarrera orokorra

- a. Ikastetxeko ikasleei lanarekiko, bzikidetzarekiko eta erlijioarekiko jarrera positiboa izatea eskatzen diegu. Bestela, kolokan jar daiteke Ikastetxearen bilakaera egokia, eta hori ikasleen kalterako litzateke.
- b. Zehazki, hauxe eskatzen diegu ikasle guztiei, hala Ikastetxearen barruan, nola kanpoan:
 - b.1. Laguntasunez eta kolaborazio-espirituarekin aritza besteetan ongizatean eragina duten alderdi guztieta: txukuntasuna, garbitasuna, egokitasuna, hizkuntza duina, errespetua hezitzaleei, ikaskideei, besteetan objektuei, eskolako materialari, eta abar.
 - b.2. Eskoletan eta gainerako eginkizun akademikoetan, lanerako espiritua izatea.
 - b.3. Duintasunezko bizitza morala izatea.
 - b.4. Kristau-erlijioa apreziatzea eta ekitaldi erlijiosoetan jokabide egokia izatea.
- c. Goian adierazitakoarekin bat ez datozen jokabideek zigorra jaso ahal izango dute:
 - c.1. Dagozkien ohartarazpenak egin arren, eta familiei abisuak luzatu arren, jokabidea aldatzen ez duten ikasleak Ikastetxetik kanporatu ahal izango ditugu, aldi baterako edota behin betiko, indarrean dagoen araudiarekin bat (201/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa, 2008ko abenduaren 16ko EHAAn argitaratua).
 - c.2. Besteak beste, ondoko jokabide hauek izango dira komunitatearen kontrako edota bzikidetzarako oso kaltegarri: diziplina eza; ofentsak eta erasoak; modu bidegabean Ikastetxeko eta/edo Hezkuntza-komunitateko kideren baten materialez, objektuez edo dependentziez jabetza edo horiek hondatzea –halakoetan, hondatzearen gastua familiak ordaindu beharko du–, eta abar. Faltaren larritasunaren arabera, diziplina-prozedura bat hasi ahal izango da, edota barne-araudian zehaztutako besteren bat.
 - c.3. Ikastetxearen estiloarekiko behin eta berriro pasibotasuna edota gaitzespena agertzen duten ikasleen kasuan, Ikastetxean jarraitzea egoki den edo ez aztertu ahal izango du Zuzendaritzak.

6.1.2 Bertaratzea

- a. Familiek bat egin behar dute Ikastetxeko ordena eta diziplinarekin. Ez dira eguneroko jarduera batera ez joateko alferrikako baimenak eskatzen ibiliko.
- b. Bertaratze-faltak aurreikusgarriak direnean, eta gehienez ere egun batekoak, aldez aurretik faltaren zergatia zehaztu eta baimena eskatu beharko diote tutoreari (Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan) edota kurtsoko koordinatzaileari (Bigarren Mailako Hezkuntzan). Falta egun batekoak baino gehiagokoa izanez gero, etapako koordinatzaileari eskatu beharko zaio baimena.
- c. Bertaratze-falta aurreikusgarria ez denean, Ikastetxeko Harreran jakinarazi beharko da, eskolak hasi baino lehen, goizez edo arratsaldez.
- d. Eskolara itzultzean, ikasleek gurasoek idatzitako ohar bat eraman beharko dute, eta tutoreari eman (Lehen Hezkuntzan) edota kurtsoko koordinatzaileari (DBHn eta Batxilergoan).
- e. Bigarren Hezkuntzan azterketa bat izatea ez da arrazoi nahikoa aurreko eskoletara ez joateko. Eskola horietara bertaratzen ez direnek, zigor modura, ezin izango dute azterketara aurkeztu.
- f. Oporraldiak Ikastetxeko egutegi ofizialean zehaztuta daude. Ikastetxeak ez du, inola ere, data horiek aldatzeko baimenik emango.
- g. Justifikatu gabeko bertaratze-faltengatik zigorra ezarri ahal izango da.
- h. Ikastetxeko jantoki-zerbitzua erabiltzen duten Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek ezin izango dute eguerdian Ikastetxetik atera.

6.1.3 Puntualtasuna

- a. Hitzordu guztietara puntual agertzea balio handiko bertutea da, eta ezinbestekoa Ikastetxeak behar bezala funtziona dezan. Horrez gain, oso hezigarria eta eraginkorra da ikasleentzat.
- b. Ikasle guztiak izan behar dute puntual; batez ere, Ikastetxean sartzeko orduei dagokienez.
 - **Haur Hezkuntza:** berandu iristen direnek Harrerara eraman beharko dute haurra; bertan, dagokion hezitaileak jasoko du, eta gelara eramango.
 - **Lehen Hezkuntza:** berandu iristen diren haurrak eraikinaren sarrerako atarian geldituko dira; han, koordinatzaileak jasoko ditu. Gurasoak ez dira, inola ere, ikasgelan sartuko.
 - **Bigarren Hezkuntza:** Ikastetxean sartu ahal izateko, ikasleak gurasoek edo legezko ordezkarien sinatutako ziurtagiria ekarri beharko du. Ziurtagiri hori dagokion kurtsoko koordinatzaileari eman beharko dio, eta haren baimena jasotzen duenean sartu ahal izango du ikasgelan.
- c. Behar bezala justifikatu gabeko puntualtasun-faltak zigortu egin ahal izango dira, eta, kasuaren larritasunaren arabera, ikaslea Ikastetxetik aldi baterako kanporatu ahal izango da.

6.1.4 Gizalegea

- a. Indarrean dagoen osasun-legeriarekin bat, debekatuta dago eskola-esparruan erretzea.
- b. Era berean, guztiz debekatuta dago Ikastetxean drogak eta baimenduta ez dauden substantziak edukitza, kontsumitza, eskaintza eta saltza.
- c. Osasunarekin eta elikadura osasungarriarekin lotutako arrazoia, Ikastetxeko hezkuntza-komunitatearen iritzian, ez da komenigarria litxarkeriak, gominolak, aperitibo kurruskatsuak eta abar jatea. Urtebetetzeak ospatzeko, ez ekarri litxarreriarik; hobe gaietak, bizkotxoak eta gisa horretako elikagaiak ekartzea.
- d. Ikasleek errespetuzko hezkuntza, higienea, jokabidea, hizkera eta harremanak izan beharko lituzkete.
- e. Ikaslek modu egokian jantzita etorriko dira Ikastetxera, eta egin behar dituzten jarduerak aintzat hartuta. Haur Hezkuntzan, haurrek bata erabili beharko dute.
- f. Materialak, lokalak eta instalazio komunak zaindu egin behar dira, eta Ikastetxeko esparru osoa garbi mantendu behar da.
- g. Patioa hezkuntza-komunitateko kide guztiak zaindu behar dute; beraz, denek arduratu behar dute egoera onean eta garbi mantentzeaz. Haur Hezkuntzako patioan, arreta berezia jarri behar da ate irristatzaleekin, janarien kondarrekin (merienda), garbitasunarekin, eta abar. Eremu hori, 17:00-18:00 bitartean, familientzat zabalik egongo da. Tarte horretan, familiek arduratu beharko dute patioa eta haurrek zaintzeaz, eta arauak betearazteaz.
- h. Debekatuta dago Ikastetxeko patiora monopatinenkin, bizikletekin edo motoekin sartzea.
- i. Debekatuta dago Ikastetxera animaliekin sartzea.
- j. Debekatuta dago Ikastetxean, ikastorduetan, telefono mugikorrak eta audio-bide-datu tresnak erabiltzea (MP3, PSP, IPOD...). Era berean, debekatuta dago Ikastetxearen baimen espresurik gabe irudiak hartzea, edozein gailuren bidez, eta irudi horiek zabaltzea. Arau hori urratzen dutenei, kendu egingo zaizkie gailuak. Ikerlaren batek telefonoz komunikatzeko beharra balu, Ikastetxeko bulegoetan telefono bat erabiltzen utzikio liokete, baita dagokion Koordinazioko bulegoetako telefonoak ere.
- k. Ikastetxeko zerbitzuak erabiltzeko orduan (jantokia, autobusa...), Ikastetxeko gainerako jardueretako ezarrita dauden arau berberak bete beharko dira. Zerbitzu horiek modu desegokian erabiltzen dituen ikasleari, abisual behin eta berriro egin arren jokabidea zuzentzen ez badu, zerbitzu horretatik baja eman ahal izango zaio.
- l. Haur Hezkuntzako patiora jaisteko eraikin nagusiko igogailua erabili behar duten familiek eraikinetik kanpo itxaron beharko dute 16:50 arte. Debekatuta dago ordu hori baino lehen sartzea, Ikastetxearen funtzionamendu egokia eragozten delako.

6.2– Araudi berezia

Hona hemen etapa bakoitzeko araudi berezia, bai eta jantokikoa, autobusetakoa eta eskolaz kanpoko jarduerena ere.

6.2.1 Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzako araudia aldatu egiten da zikloz ziklo. Horregatik, hona hemen egunerokoarekin lotutako hainbat alderdi, zikloaren arabera.

1. SARRERAK ETA IRTEERAK

■ 1. zikloa

Goizeko 9:10ean, ikasleak ilaran jarriko dira, Haur Hezkuntzako patioko estalpean. Ordena honetan igoko dituzte eskailerak: D, C, B eta A. Bigarrenekoak ezkerraldean jarriko dira, eta lehenengokoak eskuinaldean. Irakasle bakoitzak bere ikasleen gaineko ardura izango du irailean; beraz, hilabete horretan, zortzi tutoreak jaitsiko dira, eta ordutik aurrera, gainerako hiletan, lau irakasle soilik jaitsiko dira, txandaka (kurtso bakoitzeko, bi). Ilarak banakoak izango dira, eta, ahal den neurrian, isilik, ordenan eta arin joango dira. Irakasleak bi ilaren erdian jarriko dira: bat hasieran, bi erdian eta azkena bukaeran (sailekin bat, gutxi gorabehera).

Berandu iristen diren ikasleek etapako koordinatzailearen bulegoaren aurrean itxaron beharko dute.

Arratsaldean, 15:00etan, modu berean sartuko dira.

13:00ak inguruan, jantokiko begiraleak zerbitzu horren erabiltzaile diren ikasleen bila etorriko dira. Ahal dela isiltasunean, dagokien jantokira eramango dituzte, ordena honetan: A, B, C eta D. Gero, txirrinak 13:10ean jotzen duenean, etxeen bazkaltzen duten haurrak aterako dira. Etxean bazkaltzen duten eta Haur Hezkuntzan anai-arrebak dauzkaten ikasleak 13:00etan atera ahal izango dira, irakasle baten laguntzaz, aurrez etapako koordinatzaileari baimena eskatuta.

Gutxi gorabehera 16:52an, txirrinak joko du, eta autobus-zerbitzua erabiltzen duten ikasleak 2.Ako irakasleaz lagunduta aterako dira, eraikineko atariraino. Han, autobusaren arduradunak jasoko ditu. Ikerleren batek egunen batean ez badu autobus-zerbitzua erabili behar, gurasoek sinatutako baimena eraman beharko du, eta tutoreari eman; tutoreak, berriz, autobus-zerbitzuaren arduradunari eman beharko dio.

Txirrinak 17:00etan jotzen duenean, gainerako ikasleak aterako dira, eraikinaren ate nagusitik. Gurasoek tarte batera egon beharko lukete zain, ikasleak behar bezala atera daitezen, eta tutoreak ikaslea bakarrik gelditu ez dela egiaztatu ahal izan dezan. Ikerlearen bila inor etortzen ez bada, Idazkaritzara eramango du.

■ 2. zikloa

Goizeko 9:10ean, bi irakasle beheko patioko estalpera jaitsiko dira, 3.eko eta 4.eko ilarak Lehen Hezkuntzako eraikinaren albo-eskaileretan koka daitezen. Irakasle bakoitza kurtso batekoa izango da. Bat aurrean jarriko da, eta bestea atzean, erritmoa bizkortzeko, edozer gertatuz gero laguntzeko, eta berandu datozenak geldiarazteko. Txanden taula koordinatzaileak egingo du, eta irakasleen gelan jarriko.

Irtetean, azken ordu horretan dagoen irakasleak gutxienez 0 solairuraino lagunduko ditu ikasleak, bultzatu gabe eta zarata gehiegi atera gabe jaisten direla ziurtatzeko.

15:00etan, modu berean jardungo dira.

Eguerdiko irteeran, lehenengo ziklokoen modu berdintsu jardungo dira. Kasu honetan, jantokiko begiraleek 13:05ean jasoko dituzte, patioan, jantokian baziaklazten duten 3.eko ikasleak. Irakasle batek beheko albo-ateraino lagunduko ditu. 13:10ean, begiraleek jantokian baziaklazten duten 4.eko ikasleak jasoko dituzte beheko patioan. Etxean baziaklazten duten ikasleak sartzen direnean erabiltzen dituzten eskaileretatik jaitsiko dira, eta goiko aldetik inguratuko dute eraikina. (Ikastetxetik ateratzean, beheko patiora doazen eskailerak jaitsi beharrean, igo egingo dituzte; horrela, eraikinaren atzealdera eta goialdera iritsiko dira).

Arratsaldean irtetean, txirrinak 16:52 aldera jotzen duenean, autobus-zerbitzua erabiltzen duten ikasleak aterako dira. 4.Ako irakasleak eraikineko sarrera nagusiraino lagunduko ditu, eta han autobusen arduradunak jasoko ditu.

Gainerako ikasleak 17:00etan aterako dira, eguerdian bezala.

■ 3. zikloa

Goizeko 9:10ean, bi irakasle beheko patioko estalpera jaitsiko dira, Haur Hezkuntzako patioaren ondoko eskaileretan behera. Irakasle bakoitza kurtso batekoa izango da. Bat aurrean jarriko da, eta bestea atzean, erritmoa bizkortzeko, edozer gertatuz gero laguntzeko, eta berandu datozenak geldiarazteko. Txanden taula koordinatzaileak egingo du, eta irakasleen gelan jarriko.

15:00etan, modu berean jardungo dira.

13:05ean, jantokiko begiraleek jantokian baziaklazten duten 5.eko ikasleak jasoko dituzte patioan. Irakasle batek beheko albo-ateraino lagunduko ditu. 13:10ean, jantokiko begiraleek jantokia erabiltzen duten ikasleak jasoko dituzte, beheko patioan. Etxean baziaklazten duten ikasleek eskailera horiek jaitsiko dituzte, beheko patioraino, eraikin nagusia behealdetik inguratuko dute, eta eskailera nagusi gorrieta gora igoko dira.

Arratsaldean irtetean, txirrinak 16:52 aldera jotzen duenean, autobus-zerbitzua erabiltzen duten ikasleak aterako dira. 6.Ako irakasleak eraikineko sarrera nagusiraino lagunduko ditu, eta han autobusen arduradunak jasoko ditu

Gainerako ikasleak 17:00etan aterako dira, eguerdian bezala.

- Berandutzeak:

Ziklo bakoitzean, arduradun bat izango da, berandu iristen diren ikasleei itxaroteko. Ikasle horiek ikasgelara iristen direnean, irakasleak idatziz jasoko du berandu iritsi direla. Bi asteko epean hiru aldiz berandu iristen badira, koordinatzaileari jakinaraziko diote.

- Bertaratzeak:

Ikasgeletan, orri berezi batzuk egongo dira, idatziz jasotzeko. Orri horiek gordetzea komeni da, ikasleen bertaratza kontrolatu ahal izateko, segimendua egiteko, eta gurasoei adierazteko.

2. JOLASTOKIAK ETA ESPAZIOAK ZAINTEA

■ 1. zikloa

Lehen zikloko ikasleen jolas-ordua 11:10-11:40 bitartean izaten da. Eraikinaren albo-eskaileretatik igoko eta jaitsiko dira.

Beti, lau irakasle izango dira haien batera: haien zikloko bi. Ikasleak inoiz ez dira bakarrik egongo (batez ere, hasierako unea kontrolatuko da). Ikastaroak aurrera egin ahala, irakasleak txandaka arituko dira.

Txirrinak jotzean, ikasleak ordena honetan igoko dira: D, C, B eta A.

Belar artifizialeko zelaia erabiltzeko aukera izango dute, irakasleen gelan jarrita egongo den taularen arabera.

Jolasteko gainerako eremua eskailera handi gorriek mugatzen dutena da. Ezin da hortik pasa. Bestalde, eraikin nagusiko pasilloetan ezin da jolastu (bulegoak dauden lekuan).

Egun euritsuetan, beheko patio estalian jolastuko dira.

■ 2. zikloa

Bigarren zikloko ikasleen jolas-ordua 11:10etik 11:40 artekoa da. Eraikinaren barruan, ohiko eskailerak jaitsiko dituzte, 0 solairura iritsi arte. Hortik, eraikineko atarira daraman pasilloan aurrera egin, eta kalera aterako dira, eta eskailera gorri nagusietatik jaitsiko dira patiora.

Euria egiten duenean, 3.eko ikasleak lehen ziklokoen eskaileretatik jaitsiko dira gero, eta 4.ekoak hirugarren ziklokoen eskaileretatik.

Haien lau irakasle izango dira beti: lehen ziklokoak, bigarren ziklokoak edota ikasgai espezifikoetakoak. Koordinatzalea arduratuko da irakasleen gelan txanden taula jartzeaz. Ikasleak inoiz ez dira bakarrik egongo (batez ere, hasierako unea zainduko da).

Jolas-ordutik bueltan, Haur Hezkuntzako patioaren ondoko eskaileretatik itzuliko dira. Eraikineko atarira iristean, 0 solairuko pasilloan aurrera jo, eta ohiki erabiltzen dizuten eskaileretatik gora igoko dira.

Belar artifizialeko zelaia erabiltzeko aukera izango dute, irakasleen gelan jarrita egongo den taularen arabera.

Jolasteko gainerako eremua eraikin nagusiko estalpea izango da, eskubaloiko bi zelaien luzera duena. Adi ibili, ikasleak ez daitezzen ekitaldi-aretoara ematen duen pasilloan egon, ez eta eskailera horietan ere.

Egun euritsuetan, frontoian ere jolastu ahal izango dira.

■ 3. zikloa

Hirugarren zikloko ikasleen jolas-ordua 10:40-11:10 bitarteko da.

Eraikinaren barruko eskailerak jaitsi ondoren, Haur Hezkuntzako patioaren ondoko eskailerak jaitsiko eta igoko dituzte.

Haietan, bi irakasle egongo dira beti. Koordinatzailea arduratuko da irakasleen gelan txanden taula jartzeaz. Ikasleak inoiz ez dira bakarrik egongo –batez ere, hasierako unea zainduko da–.

Ikasgelara itzultzeko, bide berdina hartuko dute. Euria egiten duenean, azkar igo beharko dute, eta, horien atzetik, 4.eko ikasleak ataritik jaitsiko dira.

Futbol-zelaia bi egunetik behin erabili ahal izango dute, egun bakoitzean kurtso batek, eta bi astean behin ostiralez. Koordinatzaileak xehetasun horiek jasotzen dituen taula bat jarriko du irakasleen gelan.

Jolasteko gainerako eremua eraikin nagusiko aterpea izango da, eskubaloiko bi zelaien luzera hartzen duena, frontoia, horren aurrean dauden saskibaloi-zelaiak eta brile-pistak. Horiek erabili ahal izango dira, bigarren zikloko ikasleek Gorputz Hezkuntzako eskoletarako behar ez duten bitartean. Adi ibili, ikasleak ez daitezten ekitaldi-aretoara ematen duen pasilloan egon, ez eta eskailera horietan ere.

3. PARTEKATU BEHARREKO MATERIALA ETA GELAK

Honako hauek dira: kapera, LHM1 (Lehen Hezkuntzako Multimedia 1), LHM2 (Lehen Hezkuntzako Multimedia 2), abesbatza-aretoa eta 1. zikloko bideo-gela. Azken hau lehen ziklokoek erabil dezakete, bideoak ikusteko.

Ikasturtearen hasieran, gela horietarako finkatutako ordutegiak ipiniko ditugu irakasleen gelan. Orduren bat libre gelditzen bada, Google Calendar aplikazioaren bidez erreserbatu ahal izango da (gainerako gelak eta bideo mobilak bezala).

■ LHM1 eta LHM2

Kurtso ezberdinak ikasleek partekatu beharreko espazioa denez, arau batzuk bete behar dira, modu egokian funtziona dezan. Gela horietan, arbel digitala eta portatilak daude. Araudia hauxe da:

1. Irakasleak arduratu behar bai berak, bai ikasleek gela modu egokian erabiltzeaz.
Horretarako, ondorengo puntu hauek hartu beharko ditu kontuan:
 - 1.1 Gorabeheraren bat duten postuei buruz bakarrik beteko du orria.
 - 1.2 Icasleak bitartekoak modu egokian erabiltzen ari direla zainduko du, baita Internet ere.
 - 1.3 Icasgelako gailu guztiak itzalita gelditu behar dira eskola bukatutakoan.
 - 1.4 Irakaslearen mahaiak garbi gelditu behar du, paperik eta materialik gabe.
 - 1.5 Eskolen akten koadernoa eramangarrien armairuaren gainean gordeko da.
- 1.6 LHM1 eta/edo LHM2 gelak erabiltzen dituzten ikasleak leku berdinean egon beharko dira beti, irakasleak lekuz aldatzeko proposatzean salbu.
- 1.7 Gorabeheraren bat ikusten duen ikaslek irakasleari jakinarazi behar dio, eta eskolako aktan adieraziko du. Icasleren bat eskolara joan ez denean ere, hala idatziko da aktan.
- 1.8 Icasleak LHM1eko eta/edo LHM2ko ordenagailua eta bere eskura dauzkan bitartekoak ondo erabiltzeaz arduratu behar du.
- 1.9 LHM1 eta/edo LHM2 gelak ezohiko moduan erabiltzen dituzten irakasleek aldez erreserba egin beharko dute Google Calendar

aplikazioaren bidez. Kasu horretan, ikasleek arazoren bat hautemango balute, beren izen-abizenak idatzi beharko dituzte Aktan, arazoa deskribatu, eta sinatu.

6.2.2 DBH

Etapa honetan, ziklo batetik bestera, araudia aldatu egiten da. Horregatik, eguneroakoarekin lotutako alderdi batzuk dituzue hemen, zikloka bereizita.

1. BERTARATZEA (1. eta 2. zikloak)

- Eskoletara joatea derrigorrezkoa da.
- Bertaratze-faltaren bat izatean edo berandu iristean, justifikazio bat ekarri behar da, idatziz, eta kurtsoko koordinatzaileari eman behar zaio.
- Idatzizko justifikazioak beti ekarri behar dira, familiak aurrez telefonoz abisatu arren. 48 orduan ez bada ziurtagiririk ekartzen, zigorra ezarriko da.

2. PUNTUALTASUNA

Oso garrantzitsua da arau hori betetzea, eragin handia duelako Ikastetxearen funtzionamendu egokian.

Puntual joan behar da eskoletara eta Ikastetxeko gainerako jardueretara. Inork puntualtasunaren araua behin eta berriro urratzen badu, neurriak hartuko dira.

■ 1. zikloa

Berandu iristen diren ikasleek, ikasgelan sartzeko, kurtsoko koordinatzailearen baimena jaso beharko dute.

■ 2. zikloa

Berandu iristen diren 3.eko ikasleek kurtsoko koordinatzailearen baimena beharko dute ikasgelan sartzeko, eta 4.ekoek zikloko koordinatzailearen baimena.

Goizean, 8:40an sartuko dira, eta arratsaldeetan 15:10ean.

3. SARRERAK, IRTEERAK ETA BESTE MUGIMENDUAK

■ 1. zijkloa

- Ikasleak aldez aurretik finkatutako orduetan sartu eta atera behar dira.
- Eskola-orduetan atera behar dutenek tutorearen edo kurtsoko koordinatzailearen baimena behar dute. Beti Harreratik aterako dira ikasleak, eta hantxe utziko dute baimena.
- Gelan sartu orduko, berokia esekitokian zintzilikatu behar da, bakoitzak bere lekuaren eseri behar du, eskolarako beharrezko materiala prestatu, eta isilik egon.
- Jolas-orduan, ikasleak ezin dira gelan gelditu, irakaslearen baimena dutenean salbu. Bestalde, jolas-orduan eta eskolak bukatutakoan, ezin da eraikinean sartu, ez eta baimenik gabe eskaileretan gora eta behera ibili ere. Material bila sartzeko ere, baimena eskatu behar da.
- Eskolak amaitutakoan, ikasleak zintzo aterako dira gelatik, irakaslearen ardurapean.
- Eskailerak igarobidea dira, ez jolastokia. Beraz, ezin da zaratarik atera, ezta zalapartarik sortu. Besteera lana errespetatu behar dugu.
- Eskola batetik bestera bitarteko denboran:
 - Ikasleak eserita egongo dira.
 - Ezin da gela batetik bestera materiala pasa.
 - Ikasleek ezin dute arbelean idatzi, ez klariona erabili; ordezkariak bai, hala ere.
 - Jolas-orduan, ikasleek ezin izango dute patioan ikasteko materialik jaitsi.
 - Eskolak irauten duen bitartean, ezin da komunera joan, larrialdietan salbu. Beti irakaslearen baimena jaso beharko da, eta irakasleak utzitako giltza erabili.
- Sartzean eta irtetean:
 - Eskaileren ertzetik joan.
 - Erdialdea libre utzi.
 - Ez gelditu eskaileretan hitz egiten.
- Eskola-orduetan leku batetik bestera joan beharra dagoenean (musika, hautazko ikasgaiak, informatika...):
 - Ilaran jarrita ibili
 - Isilik
 - Dagokion irakasleaz lagunduta: teknologian eta plastikan.
- Lehen solairuan dauden ikasgeletako ikasleak 3 minutu lehenago aterako dira eguerdian. Hirugarren solairukoak, berriz, txirrinak jotzen duenean.
- Tailerretara joatean, ikasleei malgutasuna emango zaie denboraren aldetik.

■ 2. zikloa

- Ikasleak aurrez finkatuta dauden orduetan sartuko eta aterako dira, arduradunaren abisuaren zain egon beharrik izan gabe.
- Eskola-orduetan atera behar duten ikasleek kurtsoko koordinatzailearen baimena behar dute 3.ean, eta zikloko koordinatzailearen baimena 4.ean. Koordinatzaile horiek ez daudenean, etapako koordinatzaileari eskatu beharko diote baimena. Ikasleak Harreratik aterako dira beti, eta hantxe utziko dute baimena.
- Jolas-orduan eta eskola-ordutegitik kanpoko uneetan, ikasleak ezin dira ikasgelan gelditu; bai, ordea, irakaslearekin egon behar badira. Bestalde, jolas-orduan, txirrinak jo arte ezin izango dira eraikinean sartu.
- Eskola batetik pixka bat lehenago ateratzean, txirrinak jo arte ezin izango dira eraikinean sartu.
- Jolas-orduan, ikasleek ezin izango dute Ikastetxetik atera.
- Ikastetxean bazkaltzen duten 3eko eta 4eko ikasleek ezin izango dute Ikastetxetik atera 13:25-15:00 bitartean.
- Gainerako mugimenduei dagokienez:
 - 3. DBHko ikasleek DBHko igogailuaren ondoko eskailerak erabiliko dituzte. Eskailerak igarobidea dira; beraz, ez dute bertan hitz egiten gelditu behar. Lehenbailehen igo beharko dituzte, modu egokian.
 - 4. DBHko ikasleek haien pasilloaren bukaeran dagoen atea erabiliko dute, kanpoaldera ematen duena. Ezin izango dituzte Batxilergoko eskailerak erabili.
- Gela batetik bestera joatean, ez egin zaratarik eta ez sortu iskanbilarik. Gainerakoena lana errespetatu behar dugu.
- Eskola batetik bestera bitarteko uneetan:
 - 3. DBHko ikasleak ikasgelan egongo dira, ondo eserita.
 - 4. DBHko ikasleak ikasgelan geldituko dira, jokabide egokian, zaratarik atera gabe eta zalapartarik sortu gabe. Ezin izango dira leihotetara atera, ezta pasillora ere.
- Oro har, DBHko 2. zikloari dagokionez:
 - Leihoa gelak airetzatzeko daude, ez kanpoan daudenekin komunikatzeko.
 - Ezin da gela batetik bestera materiala pasa.
 - Hala eskolek dirauten bitartean, nola atsedenaldietan, ikasleek ezin izango dute komunera joan; bai, ordea, salbuespen-kasuetan, baimenarekin. Komunera joan behar izanez gero, DBHko eraikineko beheko solairuan dagoenera joango dira. Jolas-orduetan ere, komun hori erabiliko dute.
- Eskolari hasiera emateko txirrinak jotzen duenean, ikasleek isilik egon beharko dute, eta materiala prest dutela.

4. IKASTEKO GIROA (1. eta 2. zikloak)

Hezkuntza-jarduera gertutasunean, errespetuan, goxotasunean eta lan-giroan gauzatu nahi dugunez, arau batzuk bete behar ditugu. Eta, faltaren bat ikusiz gero, lehenbailehen konpondu beharko dugu.

Ikasgelari dagokionez, hona alderdi nagusiak:

- Ikasgelako ordenaren eta funtzionamendu egokiaren arduradun nagusia irakaslea da.
- Ikasleak beharrezkoak den material guztia eraman behar du eskolara (liburuak, hiztegiak, flauta, txandala...).
- Ikasleek irakaslearen baimena behar dute:
 - Eserlekutik altxatzeko.
 - Irakasleari galderak egiteko eta galderei erantzuteko.
 - Ikaskide bati zerbait esateko edo zalantza bat galdezko.
 - Komunera joateko.
- Irakasle batek gurasoentzako ohar bat idazten badu, hurrengo egunean sinatuta jaso beharko du.
- Ikastetxeak bidalitako zirkularren eta noten ziurtagiriak 48 orduko epean itzuli behar dituzte ikasleek, gurasoek sinatuta.

5. JOKABIDEA

■ 2. zikloa

- Ikastetxearekin lotutako pertsona guztiak errespetuz tratatu behar dira: irakasleak, ikaskideak, garbitzaileak, jantokiko langileak, patioetako langileak, autobus-gidaria eta laguntzailea, eta abar.
- Instalazioak zaindu egin behar dira, bai Ikastetxekoak, bai Ikastetxetik kanpo daudenak ere –irteera edo txango bat egitean erabiltzen ditugunak, adibidez–.
- Zuzen hitz egin behar da, hitz itsusirik edo irainik erabili gabe.
- Ikasgela edo bulego batean sartu baino lehen, atea jo behar da, eta modu egokian sartu.
- Saiatu hitz egiten ari diren bi pertsonen erditik ez pasatzen.
- Modu atseginean eman behar dira egunonak, eskerrak, «mesedes» eskatu...
- Saiatu ikasgelan ez jaten eta ahoan txiklerik ez izaten.
- Saiatu ikasgelara musika-gailurik ez ekartzen, irakasleak hala eskatzean salbu.
- Garbi etorri behar da Ikastetxera, eta ez oso modu deigarrian (ez etorri bainujantzia jantzita, txandal motzekin, gona motzegiekin...)
- Ikasgelan, pasilloetan edo jolas-tokian mobilen bat joka hasten bada, edota agerian badago, irakasleak konfiskatu egin ahal izango du. Musika-gailuekin, beste horrenbeste.
- Debekatuta dago mugikorrarekin argazkiak ateratzea.
- Saiatu balio handiko gauzak ez ekartzen. Ikastetxeak ez du galtzen diren gauzen gaineko erantzukizuna bere gain hartzen.
- Garbitzaileen lana erraztearren, arratsaldean, material guztia txukun utzi, mahaiaren edo aulkiaaren gainean. (Ez utzi lurrean ezer).

6. ZUZENKETAK ETA ZIGORRAK

■ 2. zikloa

- Faltak beren larritasunaren eta maiztasunaren arabera zuzenduko eta zigortuko dira.
- Arauak betetzen ez diren kasuetan, Ikastetxeko estamentu bakoitzak dagokion zigorra ezarriko du, larritasuna aintzat hartuta.
- Zigorak bete egin beharko dira, nahiz eta autobus-zerbitzua erabili edota eskola partikularretara joan.

6.2.3 BATXILERGOA

1. BERTARATZEA

- Derrigorrezkoa da eskolatara eta eskola-ekitaldietara joatea.
- Ikasleren batek halakoetara huts eginez gero, beti egiaztagiria eman beharko dio koordinatzaileari.
- Azterketa, proba edo idatzizko kontrolak egin aurreko orduetan eskolatara joaten ez denak galdu egingo du dagokion probara aurkeztekoei eskubidea, eta ez-aurkeztutzat joko da.

2. PUNTUALTASUNA

- Eskolari hasiera emateko txirrinak jotzen duenerako, ikasleek eserita egon behar dute; era berean, irakaslea sartzean, isilik egon beharko dute.
- Eskolari hasiera ematean, ikasleek dagokion testua, liburua eta gainerako materiala prest izan beharko dute.
- Proba batera berandu iristen diren ikasleek koordinatzailearengana jo beharko dute, gelan sartzeko idatzizko baimena eman diezaien. Hamar minuto igaro ondoren, ezin izango dute proba egitera sartu.
- Behar bezala justifikatuta dauden puntualtasun-faltak ez dira kontuan hartuko. Justifikatu gabeko falten kasuan, berriz, honako prozedura hau jarraituko da:
 - Lehen lau puntualtasun-faltengatik ez da ezer gertatzen.
 - Bosgarrenean, jakinarazpen bat bidalzen da; bertan, adierazten da beste falta bat gertatuz gero, neurri garrantzitsuago bat hartuko dela.
 - Seigarren eta zazpigarren faltetan, ikasleak ezin izango du ikasgelan sartu, eta, egun horretan edota koordinatzaileak zehazten duen egunean, galduztako denbora berreskuratu beharko du.
 - Zortzigarren falta gertatzean, bizikidetzaren kontrako jokabidea izatearen jakinarazpena bidaliko da.
 - Bederatzigarren eta hamargarren faltetan, ikasleari ez zaio sartzen utziko, eta galduztako denbora berreskuratu beharko du.
 - Hamaikagarren falta gertatzean, prozedura bat abiaraziko da.

3. SARRERAK, IRTEERAK ETA BESTELAKO MUGIMENDUAK

- Sartzeko orduak ondoko hauek dira: goizean, 8:25ean –astearteetan, 7:55ean–; jolas-orduaren ondoren, 11:35ean –astearteetan, 12:45ean–; arratsaldean, 14:55ean.
- Irteteko orduak ondoko hauek dira: jolas-ordura, 11:10ean –astearteetan, 12:30ean–; eguerdian, 13:25ean –ordutegi trinkoko egunetan, 14:20an; astearteetan, ordea, 14:40an–; arratsaldean, 16:55ean. Bai lehenengo orduko sarrerak, bai eguneko azken irteerak DBHko 4.eko pasillotik egin ahal izango dira.
- Eskola-orduetan, Batxilergoko ikasleak eraikinaren beheko solairuan dagoen atetik sartuko eta aterako dira beti; patioaren mailan dagoenetik, alegia.
- Informatika-gelara joateko orduan, eraikinaren beheko solairuan dagoen atetik egingo dira sartu-irten guztiak.

4. ESKOLEN ARTEKO ATSEDENALDIAK ETA JOLAS-ORDUAK

- Eskolen artean dauden bost minutuko tarteetan, ikasleak komunera joan ahalko dira, eta, irakasgaiak hala eskatzen badu, ikasgelaz aldatuko dira. Ezin izango dute dagokien solairutik atera, toki-aldaaketa egiteko beharrezkoa den kasuetan salbu.
- Ikasleek dagokien solairuko komunak erabiliko dituzte.
- Guztion onerako, beti zaindu behar ditugu bai higienea, bai garbitasuna, baina are gehiago komunetan; hori horrela, ikasleek garbi eta txukun mantendu beharko dituzte, lurzoruak ahalik eta gutxien bustiz eta jolaserako eremu gisa erabili gabe.
- Jolas-ordua 11:10ean hasten da –astearteetan, 12:30ean–, eta hogeita bost minutuko iraupena du. Denbora-tarte horretan, ikasleek patioetara atera behar dute, eta Ikastetxeko eremutik kanpora joan daitezke.
- Jolas-orduetan, eguerdiko atsedenaldian eta arratsaldeko irteera-orduaren ostean, patioko arduraduna da eremu horretako arduraduna.
- Ikasleek ahalik eta garbien mantenduko dituzte patioak, paper-ontziak erabilita.
- Eskola-orduetan patiora jolastera edota kirola egitera joaten diren ikasleek baimena esku beharko diote patioko arduradunari edota Gorputz Hezkuntzako irakasleari, beste kurtsoetako ikasleen jolas-ordua edota Gorputz Hezkuntzako eskola oztopa ez dezaten.

5. IKASTEKO GIROA

- Ikerketa bakoitzak, eta talde guztia orokorrean, ikasgela txukun eta garbi mantentzen ahaleginduko da. Lurrean ez da karpetarik, libururik edota poltsarik utziko, apaletan baizik. Apalez hornitura dauden ikasgeletan, lurrean eta aulkietan ez da objekturik utziko. Ikasgelaren batean apal baino ikasle gehiago egonez gero, apalak partekatu egingo dira.
- Tutoreak aurretiaz baimena eman ezean, debekatuta dago beste atal bateko ikasgeletara sartzea, irakasgaietan taldeak zatitzen direnean salbu. Dagokion ikasgelan ere ezingo da sartu eskola-orduetatik kanpo
- Ikasgelaren bat une jakin batean arduradunik gabe geratuko balitz, irakasleak edo ordezkoak ikasgelatik atera egin behar izan duelako, ataleko ordezkariak kurtsoko koordinatzailarei emango dio horren berri, edota, kurtsoko koordinatzailera ez badago, etapako koordinatzailarei. Denbora horretan, ikasleek ezin izango dute ikasgelatik euren ekimenez atera.

6. JOKABIDE EGOKIA

- Hezkuntza-eginkizuna modu egokian gauzatzeko, funtsezko da ikasleek eta irakasleek elkar errespetatzea, bai eta ikasleek euren artean ere. Horrez gain, irakasgai guztiei dagokien arreta eskaini beharko zaie. Ondorioz, ikasle bakoitzak eta talde osoak orokorrean, elkarren arteko errespeturako eta lanerako egokiak ez diren ekintzak saihestu beharko ditu: isiltasunik eza eta zaratak, jarrera desegokiak, irainak eta errespeturik gabeko erantzunak, eta abar. Halakorik gertatuz gero, dagokion neurria hartu ahal izango da; adibidez, ikasgelatik kanporatzea.

- Ikerketa ezin dute, baimenik gabe, ikaskideen ezer hartu.

6.2.4 JANTOKI ZERBITZUA

Ikastetxeak bi helbururekin eskaintzen du jantoki-zerbitzua: batetik, ikasleak eguerdietan modu orekatuan elikatzeko, eta, bestetik, balio egokietan hezteko, bai Ikastetxeko ideien arabera (errespetua, bizikidetza...), bai bestelako balioen arabera (higienea, elikadura...). Horregatik, ikasleen jokabideak errespetuzkoa eta arretatsua izan behar du uneoro, hala jantokiko nahiz patioko langileekin, nola gainerako ikaskideekin zein bertan dauden Ikastetxeko gainerako langileekin.

Horregatik, Lehen Hezkuntzan hasi eta Batxilergora arte, ikasleek errespetatu beharreko araudi bat dago indarrean. Araudi hori familiei bidaltzen diegu, onarpena eman diezaioten. Jantokiko arduradunak eta begiraleak arduratzen dira ikasleak araudian zehaztutako jokabidera lerratzeaz. Hona hemen aipaturiko arautegia.

JANTOKI ZERBITZUKO ARAUTEGIA

Zure lankidetzari esker, hobetu egin ditzakegu jantokiko zerbitzua, higienea eta zarata-maila; horrela, gusturago egongo gara denok, bai jatorduan, bai jatordu osteko tartean.

- Errespeta itzazu jantoki-zerbitzuan nahiz jatordu osteko tartean lan egiten duten pertsona GUZTIAK, zure ikaskideak, eta zerbitzu hori erabiltzen duten zentroko gainerako langileak. Trata itzazu haiak zu tratatzea nahiko zenukeen bezala.
- Errespeta ezazu ilarako ORDENA eta jantokiko TXANDA, eta bete bertan adierazten zaizun guztia. Guztiontzat dago janaria, bai eta jateko nahikoa denbora ere.
- GARBIA izan. Erabili mahai-tresnak, eta ez egin jolas janariarekin edota urarekin. Elikagaiak modu desegokian nahastuz gero, indigestioa eragin zenezake, eta lan handiagoa emango diezu garbiketaz arduratzentz direnai.
- Bukatutakoan, JASO. Jantokitik irten baino lehen, hartu zure gauzak; ez utzi libururik, arroparik edota bestelako objekturik.
- Eskatu gauzak ONDO, «mesedes», eta izan pazientzia; behin baino gehiagotan, itxarotea egokituko zaizu.
- Jantokitik ateratakoan, errespeta ezazu zure ikasturteari dagokion PATIO EREMUA. Egin kasu begiraleek esandakoari, eta **gogoratu** debekatuta dagoela eskola-orduetan gailu elektronikoak erabiltzea (bideo-jokoak, mugikorrik, etab.), baita jantokiko ordutegian ere.

Adierazitako arauetako edozein betetzen **EZ** duenari errieta egingo diogu, eta ondorengo **ARAUTEGIA** aplikatuko:

1. FALTA ARINA	ERANTZUN HEZITZAILEA	ARDURADUNA
1.1 Erretiluak, mahai-tresnak, edalontziak edo janari-arrastoak mahaian uztea	Mahaian utzitakoa behar bezala jasotzea.	Begiralea
1.2 Jantokian janaria eta/edo ura botatzea	Botatakoa jasotzea; ahal bada, unean bertan; bestela, txanda bukatzean.	Begiralea
1.3 Sarreran eta irteeran nahasmendua sortzea	Ilaran azkena jartzea, txanda guztien ondoren.	Begiralea
1.4 Oihukatzea edo ordena asaldatzea	Aparte jatea.	Begiralea
1.5 Ordutegia ez errespetatzea	Aparte jatea.	Begiralea
1.6 Patioko eremua ez errespetatzea	Dagokion eremura itzularaztea eta tutoreari jakinaraztea.	Begiralea / arduraduna
2. FALTA LARRIA	ERANTZUN HEZITZAILEA	ARDURADUNA
2.1 Hiru falta arin egitea	Falta larriak jantokiko arduradunei jakinaraziko zaizkie. Horiek, era berean, etapako edo dagokion kurtsoko koordinatzaileari jakinaraziko dizkiote, eta neurririk egokiena zein den erabakiko dute. Behin neurria aukeratuta, gertatutakoaren berri eta hartutako neurriaren berri emango zaio familiari, koordinatzaileak edota tutoreak bidalitako gutun baten bidez.	Tutorea Koordinatzaileak
2.2 Janaria edota tresnak jantokitik kanpo ateratzea	Falta larri bat egitearen ondorioz, jantoki-zerbitzua astebetez ez erabiltzeko zigorra ezar liteke.	
2.3 Jantokira ez joatea, eta ez justifikatzea		
2.4 Begiraleengana edota sukaldeko langileengana errespeturik gabe zuzentzea	Bi falta larri eginez gero, ikaslea astebetez jantokitik kanporatuko da.	
2.5 Materiala apurtzea		
2.6 Liskarrak hasi edota eragitea		
3. OSO FALTA LARRIA	ERANTZUN HEZITZAILEA	ARDURADUNA
3.1 Hiru falta larri egitea	Jantokitik behin betiko botatzea eta gurasociai gutun baten bidez jakinaraztea.	Etapako koordinatzailea. Administratzailea eta zuzendaria.

6.2.5 AUTOBUS ZERBITZUA

Hona hemen autobus-zerbitzuan dagokion araudia:

1. BETI ESERITA JOAN. Ez altxatu eserlekutik autobusa erabat gelditu arte. Ibilbidean zehar, ez eserlekuz aldatu, eta postura egokian joan, besoak eta hankak pasillora atera gabe.
2. Autobusera igotzean eta jaistean, ez ibili korrika, ezta bultzaka ere. Kontuz motxilekin eta oinetakoekin –lokarriak askatuta egonez gero, erortzeko arriskua sor liteke–.
3. Zerbait lurrera eroriz gero, ez altxatu eserlekutik; begiraleari abisatu.
4. Ez igaro SEKULA autobusaren aurretik.
5. Autobusa ez da etxeko lanak egiteko tokia. Arkatzak, boligrafoak, guraizeak, eta abar, motxilaren barruan eraman behar dira, autobusa martxan dagoenean arriskutsuak izan baitaitezke.
6. Autobusean ezin da ez jan (merienda, litxarreria), ez edan (latak, ur-botilak), ez erre.
7. Geltokira bost minutu lehenago iristea komeni da, errepeidea presaka zeharkatu beharrik ez izateko eta arriskurik ez sortzeko..
8. Ikasleren batek ez badu autobusa hartu behar –gurasoak Ikastetxera bila joango zaizkiolako, adibidez–, idatziz tutoreari jakinarazi beharko dio (Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan), edota koordinatzaileari (DBHn eta Batxilergoan).

6.2.6 LIBURUTEGIA

Hona hemen Liburutegiko arau nagusiak:

1. Lan egiteko orduan, egin bakarka, ez taldean.
2. Erabateko isiltasunean egon.
3. Eser zaitez liburutegiko arduradunak adierazitako tokian.
4. Ez altxatu, liburutegitik ateratzeko salbu.
5. Sartzean eta ateratzean, ordenan eta isilik ibili.
6. Pertsona eta espazio guztiak errespetatu.
7. Ordenagailua lanerako bakarrik erabili (Plataforman soilik sar daiteke)

Liburutegi-zerbitzua Lehen Hezkuntzako 5. mailakoetatik hasi eta Batxilergoko 2.ekoetara bitarteko ikasleek soilik erabil dezakete.

6.2.7 ESKOLAZ KANPOKOAK

Ikastetxeak eskaintzen dituen eskolaz kanpoko ekintza guztietan, arestian aipaturiko araudi orokorra aplikatuko da. Ekintzara huts eginez gero, eskolaz kanpoko ekintza horren arduradunak etapako koordinatzaileari emango dio horren berri, eta azken hori izango da erabakiren bat hartuko duena.

Horrez gain, kirol-dekalogo bana onartu genuen jokalariantzat, entrenatzailearentzat eta gurasoentzat. Hona hemen horietako bakoitzaren edukia.

JOKALARIA

KONPROMISOA: parte hartza borondatzkoa da, ez derrigorrezko. Pertsona bakoitza taldearen mende engongo da, eta taldea pertsona bakoitzaren mende. Guziok gara garrantzitsu.

PUNTUALTASUNA: funtsezko da. Puntualtasuna oinarri-oinarrizko da hezkuntzan eta beste pertsonenikiko errespetuan.

ERRESPETUA: besteek gu errespetatzea nahi badugu, guk ere errespetatu egin beharko ditugu; arbitroa eta aurkariak barne.

ZINTZOTASUNA: batzuetan gogorra izaten den arren, ona da nork bere akatsak aitortza. Horrela, sinesgarritasun handiagoa izango dugu besteen aurrean.

ESKUZABALTASUNA - LANKIDETZA: partekatzea da helburua (*ni* esan beharrean *gu* esateak lagundi besterik ez digu egingo). Taldeko jokalari onena gainerako jolaskideak on bilakatzen dituena da; elkarren arteko lankidetza sustatzen duena, eta ez partida eta entrenamenduetan soilik. Besteei lagunduta, geure buruari ere lagunduko diogu.

EGOISMOARI UKO: indibidualismotik ihes egin. Jokalari bat, ona izan arren, ez da inor gainerako taldekideak gabe. Talde-lana sustatu beharra dago.

UMILTASUNA: beti dago gainerakoengandik zer ikasi; ez gara orojakutunak. Beti dago zer ikasi edo zer hobetu.

ERANTZUKIZUNA: bakoitzak bere egintzen erantzulea izan behar du, bere betebeharren gaineko arduratu hartzu, eta horiek betetzen ahalegindu.

GURASOAK

KONPROMISOA: jokatzen ari den seme-alabak egiten duena garrantzitsua da gurasoentzat, eta hori adierazten jakin beharra dago. Seme-alabek eta gainerako jolaskideek argi eta garbi nabaritu behar dute gurasoen inplikazioa.

PUNTUALTASUNA: errespetuzko eta hezkuntzako araua da. Jokalari bat gurasoen erruz berandu iristea ez da batere hezitzalea

ERRESPETUA: uneoro jokatu behar dago errespetuarekin, nahiz eta egoera gustukoa ez izan. Arazoak edukazioz gainditu behar dira, ezarrita dauden bideak erabilita. Funtsezkoak dira elkarritzeta eta etengabeko informazioa, baita partidetan ere. Besteek ere akatsak egiten dituzte, guk bezalaxe. Horregatik, nahitaezkoa da elkar ulertzea.

ESKUZABALTASUNA: daukagun onena eman behar dugu, besteek zer emango diguten pentsatu gabe.

LANKIDETZA: besteak eta taldea laguntzeko prest egon behar dugu beti.

KONFIANTZA: gure seme-alabek egiten duten horretan fedea izan behar dugu, eta, haien bidez, taldearen lanean.

OREKA: ez ditugu seme-alabak jokabide kontraesankor edo aldakorrekiko nahastu behar.

ZINTZOTASUNA: geure akatsak aitortzen jakin behar dugu, eta gure seme-alabenak ere bai, errua inori bota gabe.

BALORAZIOA: kiroaren arloan ez ezik, pertsonaren prestakuntza integral moduan ere bai. Daukagun inbertsiorik baliotsuena gure seme-alaben etorkizuna da. Seme-alaben autoestimua landu eta sustatu behar dugu, errealsismoz eta zintzotasunez; horretarako, haiengandik gertu egon behar dugu uneoro, eta haien sumatu egin behar dute. Hori da gure egiteko nagusia.

UMILTASUNA: oro jakutunak ez garela ulertu behar dugu. Arloaren arabera, badira gaitasun handiagoa duten pertsonak, eta gai jakin horren inguruan gehiago dakitenei utzi behar diegu lan egiten.

ENTRENATZAILEA

EREDUA: jokalarien eredu izan behar du, zentzu guztietan; baita arropetan eta entrenamenduko parte hartzean ere.

KONPROMISOA: jarduera hau ez da diruaren truke egiten. Kirola maitatu behar da, eta besteei laguntzeko gogoa izan.

PUNTUALTASUNA: funtsezkoa da. Lehenik eta behin, bakoitzak bere buruari eskatu beharko dio, besteei eskatu baino lehen.

ERRESPETUA: agintearekin bateragarria izan daiteke. Gainerakoek zenbat eta gehiago errespetatu, orduan eta handiagoa izango da taldearen aurreko aginte-maila –autoritarismoan erori gabe–.

ESKUZABALTASUNA: bakoitzak onena eman beharra dauka, emaitzak edozein izanda ere.

LANKIDETZA: denei lagundu behar zaie, baina, batez ere, gaizki pasatzen ari direnei.

KONFIANTZA: uneoro agertu behar da konfiantza, egoera zailen aurrean batez ere, bai kirolaren esparruan, bai arlo pertsonalean.

OREKA: zaila da aginduak ematea; segurtasuna eta konfiantza eman behar zaio taldeari. Agintza ez da inposatzea. Taldekideek garbi ikusi behar dute jarraitu beharreko bidea zein den; bat-bateko aldaketak eta kontraesanak alde batera utzi.

ZINTZOTASUNA: batzuetan gogorra den arren, ona da akatsak aitortzea; sinesgarriagoak izango gara.

PRESTAKUNTZA: etengabeko progresioa adierazten du; bai kirol arloan, bai arlo pertsonalean. Proiektuaren azken helburua pertsonak prestatzea da, eta kirola proiektu hori gauzatzeko baliabidea da. Ezer baino lehen, pertsona-trebatzaileak dira entrenatzaileak; kirola, horretarako erabiltzen duten baliabidea baino ez da.

KOHERENTZIA: azaldutako teoria eta jokabidea bat etor daitezela. Irizpideak praktikara eraman behar dira, entzukizunetik.

JOKALARIARI PROBETXUA ATERATZEA: pertsona guztiak ez dute ekarpen bera egiten, baina bakoitzari duen onena ematen lagundu behar diogu. Guzti-guztiak dira «aprobetxatzeko modukoak». Bakoitzak, hala ere, indargune bereziak ditu, eta banakako abantaila horien bidez, taldearen abantailak indar ditzakegu.

ENTRENAMENDUA APROBETXATZEA: entrenamenduek aktibo behar dute izan; ez galdu denborarik alferrik.

TALDEA: edozein talderen etsai nagusia individualismoa da. Entrenatzailearen eginkizun nagusietako bat «izarra» izan nahi duenaren berekoikeria saihestea da, oso negatiboa delako taldearen dinamikarako.

FABORITISMORIK EZ: pertsona guztiak dira garrantzitsu. Makina bat osatzen duten piezak bezalakoak dira: denak beharrezko. Horrek ez du esan nahi jokalari guztiak berdinak direnik; izan ere, onartu beharra dago pertsona batzuek besteek baino ekarpen handiagoa egin dezaketela, trebeagoak direlako. Halakoetan, ordea, gehiago eskatu behar zaie. Ez da batere egokia taldeak neurtzeko modu bat baino gehiago daudela sumatzea.

UMIL TASUNA: besteengandik beti dagoela zer ikasi ulertu behar dugu. Ez gara orojakutunak; beti dago zer ikasi eta zer hobetu.

7. Gatazken prebentzioa eta kudeaketa

Gure iritzian, bai araudia, bai araudiaren xehetasunak azaltzeari eskaintzen dizkiogun orduak prebentzio-iturri garrantzitsua dira. Gainera, nabarmentzeko modukoa da Ikastetxea osatzen dugun guztiok araudia aplikatzeko eta segimendua egiteko egiten dugun ahalegina.

Lehen Hezkuntzako 1. mailatik Batxilergora, astean ordubete eskaintzen diogu tutoretzari, eta tutoretzan lantzen diren gaien lotura estua daukate dizimlinarekin, bizikidetzarekin, ikastearekin, errespetuarekin, eta abar.

Lehen Hezkuntzan, astean ordubete eskaintzen zaio tutoretzari. Saio horietan, arreta handia eskaintzen zaie bizikidetzari, dizimlinari, aruaeit, ikasteari, instalazioak errespetatzeari, balioei, jokabideei...

Horregatik, tutoretzan astero egiten den lana bizikidetza hobetzena eta gatazkak prebenitzera zuzenduta dago, neurri handi batean.

7.1 – Gatazken sailkapena

Gatazkak honela sailka genitzake:

7.1.1 – Ikasleen arteko gatazkak

Errespetu falta, hitzez eraso egitea, tratu desegokia ematea, hitz itsusiak erabiltzea, iraintzea... Horrelakoei dagokienez, hiru mota bereizten ditugu: gatazka puntuak, errepikakorrak eta oso larriak.

- A. Gatazka puntuak: gertatutakoaren arabera, neurri bat edo beste hartuko da:
 - 1.) ikasleak hausnartzera, hitz egitera eta arazoa elkarren artean konpontzera bultzatzea.
 - 2.) ikasle baten bitartekaritzara jotzea (3. zikloan)
 - 3.) irakaslearen bitartekotzara jotzea
 - 4.) gatazka ikasgela desberdinak ikasleen artean sortu bada, tutoreek eta zikloko koordinatzaileak parte har dezakete.
- B. Gatazka errepikakorrak: jada adierazitako alderdiez gain, pertsona isolatua sentiarazten dutenak dira.
 - 1.) Irakasleek behaketa egingo dute, datu objektiboak bildu, eta datu horiek tutoreari emango dizkiote.
 - 2.) Beharrezko diren neurriak hartuko dira: ikasgela barruan lekuz aldatzea, dinamika integratzaileak jolas-orduan, eskoletan...
- C. Oso gatazka larriak: erasoak, ikaskide bat nahita baztertzea... Horrelakoetan, Orientabide Saila, etapako koordinatzailea, zikloko koordinatzailea, tutoreak eta irakasleak ere sartzen dira lantaldean.
 - 1.) Kasua tutorearekin, irakasleekin, zikloko eta etapako koordinatzaileekin eta, batzuetan, Orientabide Sailarekin aztertu behar da.
 - 2.) Ikasle zehatz batzuekin jarduteko protokoloak erabaki behar dira, neurri zuzentzaile eta prebentiboak adostu, eta berehala ezarri. Aldez aurretik, familiari horren guztiaren berri emango zaio.
 - 3.) *Bullying* kasuetan, Eusko Jaurlaritzak ezarritako protokoloa abiarazten da.

7.1.2– Helduekin izaten dira gatazkak

Errespetu falta, hitzezko liskarrak, tratu desegokia, hitz itsusiak, irainak... Atal honetan, hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztiak daude sartuta: (familiak, ikastetxeko langileak, jantokiko langileak, garbiketa-zerbitzukoak...). Hauek dira hartu beharreko neurriak:

- 1.) Familiari idatziz jakinaraztea, ikaslearen agenda erabilita edota telefonoz.
- 2.) Geroago, aurrez aurre hitz egin beharko da familiarekin.
- 3.) Ondorengo egunetan, gaiaaren inguruko hausnarketa egin, eta hartu beharreko neurriak adostuko dira: barkamena eskatzea, pertsona horri eguneroko zereginetan laguntza eskaintzea, gatazkaren larritasun-maila kontuan hartuta gainerako kideekin ikasgelan ez egotea...

7.1.3– Material komunak, Ikastetxeko instalazioak, eta abar ez errespetatzean edo ez zaintzean sortutako gatazkak

Instalazioak, guztionak diren materialak, ikaskideen materialak, eta abar ez errespetatzea.

- Ikasleek ikaskideen materiala nahita hautsi dutenean, familiari material horren gastuak ordain ditzala eskatzen diogu. Ikastetxeko langileak beharrezko datuak biltzeaz arduratzen dira, modu desegokian jokatu dutenak nortzuk diren zehaztu ahal izateko. Kasu honetan, barne har daitezke eskola-orduez kanpoko ekintzetan gatazkaren batean parte hartu duten ikasgelako kideen kasuak
- Instalazioak modu egokian erabiltzen ez direnean eta horien erabilera egokirako ezarrita dauden arauak hausten direnean, neurri jakin batzuk ezarriko dira, familiarekin hitz egin ostean; besteak beste, ondokoak: garbitzaileekin batera instalazioak garbitzea, barkamena eskatzea, pertsona horri beste zereginen batean laguntza, gertatutakoaren inguruan idatzizko hausnarketa egitea ikastetxeko ordutegiaz kanpo...
- Kalteak nahita eta ikastetxeko arauak urratuz eragin direnean, familia egingo da gastuen kargu. Kaltea eskola-orduetatik kanpo egin bada, ikasleak familien ardurapean dauden orduetan, aurreko neurri bera hartuko da.

7.1.4- Etapa barneko funtzionamendu-arauak ez betetzeagatik sortutako gatazkak

Ikasgelara igotzearen eta ikasgelatik jaistearen ingurukoak, jolas-aldi eta eguerdiko tartean esleitutako espazioen ingurukoak, eta abar.

Dagokion behaketa egin eta jasotako datuak egiaztatu ondoren, barne-funtzionamenduko arauak urratu dituzten ikasleen familiei gertatutakoaren berri emango zaie. Icasleek, eskola-orduetatik kanpo, gertatutakoari buruzko hausnarketa egingo dute, idatziz.

Arau guztiak familiei ikasturtearen hasieran ematen zaien dokumentuan jasota daude.

Mugikorrik, kontsolak eta antzeko gailuak ez erabiltzeko araua betetzen ez duten

ikasleei kendu egingo zaizkie halakoak, eta etapako koordinatzaileak hilabetez gordeko ditu.

7.1.5- Ez ikastearekin, etxeko lanak ez egitearekin, material faltarekin eta antzekoekin lotutako gatazkak

Ikasleek behar beste ikasten ez dutenean, etxeko lanik egiten ez dutenean, edota eskoletan lan egiteko materiala behin eta berriz ekartzen ez dutenean, irakasleak horren berri emango die familiei, ikaslearen agenda erabiliz edota telefonoz deituz. Neurri horren helburua familiekin lankidetzan jardutea da, guztien ahaleginari esker ikaslea kontura dadin zeinen garrantzitsuak diren esfortzua, erantzukizuna eta konstantzia bere hezkuntza behar bezala garatzeko orduan.

7.1.6- Ikasgelako diziplinarekin lotutako gatazkak

Ikasleren batek irakaslearen aginduak betetzen ez dituenean (isilik egotea, adi egotea, eskolako erritmoa ez oztopatzea, gainerako ikaskideen lana errespetatzea...), ikasgelatik kanporatu eta pasilloan egoteko agindu ahalko zaio. Bertan, irakasleak geratutakoaren inguruau hitz egingo du ikaslearekin, eta jokabidea zuzen dezala eskatuko dio.

Familiari horren berri emango zaio, agendaren bidez edota aurrerago izango den elkarrizketa batean.

7.2 Neurriak ezartzea

Adostutako neurriak aplikatzeko orduan, ildo naturalari jarraituko zaio:

- Tutorea
- Zikloko koordinatzailea
- Etapako koordinatzailea
- Orientazio Saila

7.3 Hartutako neurrien sailkapena

Arestian aipatutako neurriak honela sailka ditzakegu:

7.3.1- Ohikoak

- Ikaslearekin edo ikasleekin hitz egitea edo gogoeta egitea.
- Ikasleari denboraldi batean ikasgelan sartzen ez uztea.
- Gertatutakoari buruz idatziz gogoeta egitea, eta adostutako neurriak hartzea (barkamena eskatu, kaltea konpontzen lagundi...).
- Agendaren bidez, familiei gertatutakoaren berri ematea. Gurasoek jakinarazpena sinatuta itzuli beharko dute, eta segimendua egin beharko diote.
- Familiarekin telefonoz eta/edo aurrez aurrez elkarrizketa izatea.
- Kalteak konpentsatzeko, lanen bat egitea, komunitate guztiaren onerako.

7.3.2 Ohiz kanpokoak

- Ikasleari egun batean edo gehiagotan ikasgelan sartzen ez uztea, eta ikaslea, bitartea horretan, dagozkion lanak egiten aritzea. Aldez aurretik, familiari horren berri eman beharko zaio.
- Eragindako kaltea ekonomikoak ordainaraztea; aurrez, familiari gertatutakoaren berri eman beharko zaio.
- Eskola-ordutik kanpo, gogoeta eta lan bereziren bat egiten gelditzea, komunitatearen onerako. Aurrez, familiari jakinarazi beharko zaio, eta harekin

adostuko da neurria.

8. Adiskidetzea eta kalteak konpontzea. Bitartekaritza eta konpromisoak

Ikastetxean bizikidetzaren kontrako jokabideren bat edota bizikidetza larriki kaltetzen duen jokabideren bat gertatzen denean, Bizikidetza eta Diziplina Batzordeak esku hartzen du. Jokabide desegokien kasuan, normalean ez du jardun behar izaten.

Ondoko hauek osatzen dute Batzordea:

- Ikasleari dagokion etapako koordinatzaileak
- Ikasleari dagokion zikloko koordinatzaileak
- Idazkariak


Batzorde horren helburua aipaturiko jokabideak modu objektiboan zuzendu ahal izatea da, tutoreak edota irakasleak neurri zuzentzailea erabakitzeko prozesutik kanpo utzita.

Batzorde hori, ahal dela, gertaeraren egun berean osatuko da, erabakia ahal bezain laster hartu eta jarduera-protokoloari berehala ekiteko. Batzordeak ezin izanez gero, Zuzendaritzak hartuko du horren inguruko erabakia.

9. Neurri konpontzaileak eta zuzentzaileak.


Atal honetan, neurri zuzentzaileak aplikatzeko erabili ohi diren prozedura desberdinak azalduko ditugu. Prozedura horiek guztiak bat datozen Eusko Jaurlaritzak ikasleen eskubide eta betebeharrei buruz onartutako 2011/2008 Dekretuan, abenduaren 2koan, zehaztutakoarekin.

Ondorengo eskema orokorrean, prozedura desberdinak daude jasota. Jokabide bakoitzaren aurrean aplikatu beharreko prozeduraren xehetasunak aurrerago aztertuko ditugu.



9.1 Jokabide desegokia

Honako hau da prozedura desegokien kasuan jarraitu beharreko prozedura:



Ikus dezagun goian azaldutako eskema xehetasunez.

- Organismo autorizado: *Irakasle guztiak* dauskate jokabide desegokiak zuzentzeko eskumena.
- Nola?

b.1. Ahoz ohartarazpena eginez

Irakasleak aktan eta/edo ikasgelako saioak erregistratzeko dokumentuan jasoko du gertaera eta, hala badagokio, egokia iruditzen zaion neurri zuzentzailea aplikatu, eta arazoari amaiera emango dio.

b.2. Jokabidea errepikatzen bada, ohartarazpena idatziz eginez (31.1.m artikulua)

- Irakasleak jokabide gaitzesgarriaren berri emango die kurtsoko koordinatzaileari eta tutoreari.
- Irakasleak irakasle-gelan dagoen jakinarazpen-idazkia beteko du, oinarri gisa jokabide desegokiak eta horiei dagozkien neurri zuzentzaileak zerrendatzen dituen eredu kontuan hartuta. Jakinarazpena familiarri helarazi aurretik edota ondoren aplikatu ahal izango dira neurri horiek; irakasleak erabakiko du, unean-unean, zein den aukera horietatik egokiena.
- Tutoreari idatzizko jakinarazpenaren berri emango dio, ahoz; ikasleari, berriz, jatorrizko jakinarazpena emango dio, gurasoei helarazteko.
- Hurrengo egunean, ikaslek irakasleari emango dio gurasoek sinaturiko idazkia, eta irakasleak ikaslea matrikulatuta dagoen ikasturteari dagokion koordinatzaileari emango dio (1. zikloko koordinatzaileari, 3. zikloko koordinatzaileari edota 4. zikloko koordinatzaileari). Icaslek itzulitako idazkia sinatura egon ez arren, aurreikusitako neurri zuzentzailea aplikatu ahalko da.
- Irakaslea izango da beste hezitzale bati aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak exekutatzeko arduraduna.
- Dagokion zikloko koordinatzailearen iritziz, jokabidea jokabide desegoki soila baino larriagoa bada, hala jakinaraziko dio Bizikidetza eta Diziplina Batzordeari, eta Batzordeak, beharrezkoan izanez gero, bizikidetzaren kontrako jokabideetarako prozedura abiaraziko du.

✓ Kanporaketei dagokienez:

- Kanporaketa salbuespenezko neurri gisa erabiliko da, neurri hezitzale modura.
- Eskoletara joateko eskubide-etetea modu murritzalean aplikatuko da.
- Ikasgelaik kanporatzea idatziz jaso behar da, behar bezala arrazoituta.

Honako hauek izango dira jokabide desegokiak:

- Justifikatu gabeko puntualtasun-faltak.
- Justifikatu gabeko bertaratze-faltak.
- Ikastetxeko instalazioei, materialari edota hezkuntza-komunitatea osatzen duten gainerakoan gauzei narriadura eragitea, zabarkeriaren ondorioz.
- Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoak ez betetzea, betiere ikaslek haiek mespretxatzen edo iraintzen ez baditu, edota diciplina nahita hausten ez badu. Ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea.
- Hezkuntza-komunitateko kideen kontrako jarrera, keinu edo hitzak erabiltzea.

- Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo gailuak eramatea ikastetxera.
- Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe erabiltzea, edota baimendutakoak ez diren helburuetarako.
- Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea; betiere, horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarenak kopiatzen uztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo gailuak erabiltzea.
- Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxeen sartzeko aukera erraztea edo haien sartzea, Ikastetxeko bizikidetza-arauen edo gobernu-organoen jarraibideen aurka.
- Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.
- Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren kontrako jokabide gisa edo bizikidetza horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

Horrelako jokabideak honela zuzenduko dira:

- Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruz hausnarketa eginez.
- Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean, jokabidea desegokia izan dela onartuz.
- Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak eginez.
- Jokabide desegokiarekin lotuta dagoen lanen bat eginez.

Idatzizko prozeduren kasuan, honako eredu hau erabili behar da.

**IDATZIZKO OHARTARAZPENA, JOKABIDE DESEGOKIAGATIK/
COMUNICACIÓN DE AMONESTACIÓN ESCRITA POR CONDUCTA INADECUADA**

Ikaslea/Alumno-a:

Maila/Nivel:

Guraso agugarriok/Estimados padres:

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren arabera (2008ko abenduaren 16ko EHAA), zuen semearen/alabaren portaeraren berri eman behar dizuet. Hain zuzen ere:/Según el **Decreto 201/2008, de 2 de diciembre, sobre derechos y deberes de los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco** (BOPV de 16 de diciembre de 2008), me veo en la obligación de informarles del comportamiento de su hijo/hija, que a continuación se describe:

Eguna, ordua eta lekua /Día, hora y lugar:

.....
.....
.....
.....

Jokabidearen eta ekintzen deskribapena/Descripción de los hechos y comportamiento que se reprocha:

.....
.....
.....
.....

Horregatik, **neurri zuzentzaile** hau aplikatu zaio edo aplicatuko zaio, hala badagokio/ Por ello, se ha aplicado o se aplicará, en su caso, la **medida correctora** consistente en:

.....
.....
.....
.....

Eguna, ordua eta lekua/Día, hora y lugar:

.....
.....
.....
.....

Zuen semearentzat/alabarentzat eta Ikastetxearen jarduera egokiarentzat kaltegarria den jokabide hau berriro gerta ez dadin, lagunza eskatu nahi dizuet, eta gogorazten dizuet horrelako portaerak errepikatzea ikastetxeko **bizikidetzaren kontrako jokabide gisa har daitekeela, aipatutako Dekretuaren 31.1.m) artikuluaren arabera.**/Solicito su colaboración para evitar que esta conducta perjudicial, tanto para su hijo o hija como para la buena marcha del Centro, se siga produciendo y les recuerdo que la repetición de este tipo de comportamientos se podrá considerar como **conducta contraria a la convivencia en el centro docente según el artículo 31.1.m) del citado Decreto.**

Adeitasunez agurtzen zaituztet/Le saluda atentamente:


Donostian, 20...eko.....ren.....an/En San Sebastián, a de de 20.....

Irakaslea/El profesor o profesora:

Sin./Fdo.:.....

Ikaslearen sinadura eta ohartarazpen hau jasotzearen data/ Firma del alumno-a y fecha de recepción de la comunicación:	Firma del padre, madre o tutor legal y fecha de recepción de la comunicación/Aitaren, amaren edo legezko tutorearen izenpea, eta ohartarazpen hau jasotzearen data.
Izenpea/Firma:	Izenpea/Firma:
Data/Fecha:	Data/Fecha:

9.2 Bizikidetzaren kontrako jokabideak



Bizikidetza modu larrian kaltetzen duten jokabideen kasuan ere aplika daiteke eskema hau.

Ikus ditzagun aurreko eskemaren xehetasunak.

1) Hezitzaleak esku hartza:

Hezitzaleak nahitaez esku hartu behar du jokabide desegoki edota oso kaltegarrien aurrean. Kasu horietan, egilea identifikatu beharko du, eta ikasleari egotxitako jokabidearen inguruabarrak zehaztu beharko ditu.

2) Kurtsoko koordinatzaileari jakinaraztea:

Irakasleak lehenbailehen emango die jokabide desegokiaren berri, bai kurtsoko koordinatzaileari, bai ikaslearen tutoreari.

3) Jokabidea baloratza, frogak lortzea eta neurri zuzentzaileak proposatza.

Kurtsoko koordinatzaileak jokabidearen aurreneko balorazioa egingo du (bizikidetzaren kontrako den edota bizikidetza larriki kaltetzen duen), beharrezkoa den informazioa jasoko du (aitorpenak, frogak...) eta dagozkion neurri zuzentzaileak planteatuko ditu.

4) Bizikidetza eta Diziplina Batzordeari bilera egiteko deia egitea.

Kurtsoko koordinatzaileak etapako koordinatzaileari jakinaraziko dio, eta etapako koordinatzaileak elkartzeko deialdia egingo dio Bizikidetza eta Diziplina Batzordeari. Honakoa izango da Batzordearen osaera, ikasleari dagokion ikasturtearen arabera:

- Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan: zikloko koordinatzailea, etapako koordinatzailea eta idazkaria.
- DBHko I. zikloko ikasleen kasuan: kurtsoko koordinatzailea, zikloko koordinatzailea, etapako koordinatzailea eta idazkaria.
- DBHko II. zikloko ikasleen kasuan: kurtsoko koordinatzailea, zikloko koordinatzailea, etapako koordinatzailea eta idazkaria.
- Batxilergoko ikasleen kasuan: kurtsoko koordinatzailea, etapako koordinatzailea eta idazkaria.

5) Gaia Batzordean aztertza:

Arazoa aztertu ostean, Batzordeak neurri zuzentzaileak proposatuko ditu, eta, hala badagokio, kasua zuzendariaren aurrean aurkeztuko du.

6) 1. unea: Prozeduraren hasiera

Zuzendariak prozedurari hasiera ematea erabakiko du:

- a) ikasleren batek bizikidetzaren kontrako jokabidea edota bizikidetza larriki kaltetzen duen jokabidea izatean.
- b) ohiko prozedura (58. artikulua eta hurrengoak) edota ohiz kanpoko prozedura (68. artikulua eta hurrengoak) jarraitzea erabakiko du.

Lortutako frogekin, idazkariak prozedurari hasiera emateko jakinarazpen-dokumentuak prestatuko ditu. (4. eranskina)

Hasieran batean, ikasleari dagokion kurtsoko koordinatzailea arduratuko da dokumentazio hori ikasleari emateaz; nolanahi ere, eraginkortasun-arrazoiak direla-eta, etapako koordinatzaileak besterik erabaki dezake.

Hasierako dokumentazioa eman baino lehen, eta ikaslearen jokabideak duen larritasun-maila kontuan hartuta, kurtsoko koordinatzaileak –edota zikloko nahiz etapako koordinatzaileak, hala badagokio– gurasoei telefonoz deituko die, ikasleari egozten zaizkion jokabideen berri emateko. Horrez gain, semeak edo alabak eramango dien hasierako

dokumentazioa irakurtzeko eta ahal izanez gero biharamunean sinatuta itzultzeko eskatuko die.

Ohiz kanpoko kasuetan salbu, ikasleei ez zaie hasierako dokumentazioa ostiral arratsaldeetan emango, eta gurasoei ez zaie telefonoz egun horretan deituko.

Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak gertatzen direnean, behin-behineko neurriak hartu ahalko dira; adibidez, ikastetxera bertaratzeko eskubidea etetea, edota zenbait eskoletara joateko eskubidea etetea eta ikastetxeen egonaraztea. Neurri horiek prozedurari hasiera ematen dion dokumentuan jaso behar dira, eta lehenbailehen jakinarazi behar zaizkio klaustroari –irakasle-gelan hartu diren neurriak jasotzen dituzten jakinarazpen orriekin batera– eta Hezkuntzako Ikuskaritzari –ikastetxeari esleitutako ikuskariari, fax bidez–, kasu bakoitzerako diseinaturiko eredu banatan. Klaustroari aurkeztu beharreko jakinarazpen-orria dagokion etapako koordinatzaileak idatziko du; Hezkuntzako Ikuskaritzari helarazi beharrekoa, berriz, idazkariak idatzi eta bidaliko du, dagokion etapako koordinazioak besterik erabakitzenten duenean salbu.

- ✓ Bizikidetzaren kontrako zenbait jokabideren kasuan, eta 201/2008 Dekretuan prozedurak sinplifikatzeari buruz zehaztutakoarekin bat etorriz, procedura bat abiari beharrean, ordezko neurriak sustatzeko txosten bat ireki ahalko da. Ordezko neurri horiek onartuko ez balira, prozedurari hasiera emango litzaiok.
- ✓ Jokabideren bat delitu izan badaiteke, nahitaez Ministerio Fiskalari eman beharko zao horren berri, Hezkuntzako Ikuskaritzari kontsulta egin ostean. Idazkaria arduratuko da jakinarazpen hori egiteaz, etapako koordinatzaileak edota Ikastetxeko Zuzendaritzak besterik zehazten dutenean salbu.

7) 2. unea: Entzunaldia eta zuzendariak «bitartekari» bat izendatzea

- Entzunaldiaren izapidea ikasleari azalpenak emateko eta bere burua defendatzeko duen eskubidea bermatzearen egiten da; horrenbestez, ikasleak egoki iruditzen zaizkion alegazioak egiteko aukera izango du.
- Ikerketaren alegazioak entzunaldian gurasoez edo legezko ordezkariez lagunduta egoteko eskubidea daukate. Haiek ere alegazioak egin ahal izango dituzte.
- Bizikidetza larriki kaltetzen duten jokabideen kasuan, aplikatu beharreko neurri zuzentzailea eskolaz kanpoko jarduerak etetea, jarduera osagarriak etetea edota jantoki-edo garraio-zerbitzua etetea denean, nahitaez egin beharko zaie entzunaldia ikaslearen gurasoei/tutoreei.
- Entzunaldiaren izapidea, ahal izanez gero, hasierako ekintza jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egin beharko da; betiere, gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldia egitea derrigorrezkoa ez bada. Derrigorrezkoia izanez gero, entzunaldia gehienez ere hiru eguneko epean egin beharko da.
- Interesdunak entzunaldira agertu ez arren, prozedurak aurrera jarraituko du.
- Aurkeztutako alegazioak aktan jaso behar dira, idatziz. (5. eranskina).
- Bitartekaria Bizikidetza eta Diziiplina Batzordeko kide bat izango da. Bitartekaria beste hezitzaile bat izatekotan, eredu bat eta jarduera-ildoak izango ditu eskura, bitartekari-lanak egiten laguntzeko.

■ Bitartekariak entzunaldiian izango dituen eginkizunak:

- Entzunaldi-izapidea gauzatu dela egiaztatzen duten dokumentuak prestatzea, bitartekariak berak, ikasleak eta gurasoek sina ditzaten.

■ Bitartekariak entzunaldiian izango dituen eginkizun zehatzak:

a. Bitartekariak ondoko dokumentu hauek eduki beharko ditu:

- Eusko Jaurlaritzaren 201/2008 Dekretua, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa.
- Ikastetxearen antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko barne-araudia – berrikuspen-fasea dago–.
- Ikaslearen aitorpena.
- Hezitailearen/irakaslearen aitorpena.
- Txosten oinarritzeko garrantzitsuak izan daitezkeen gainerako aitorpenak, frogatutakoak edo frogatutako grafikoak.
- Bizikidetzaren kontrako jokabidea edota bizikidetza larriki kaltetzen duen jokabidea izateagatik prozedurari hasiera ematen dion dokumentua.

b. **Bitartekariak hitzordu bat adostu beharko du familiarekin** (telefonoz, ikaslearen agendaren bidez, posta elektronikoz –lehenengo aukera hobesten da–), eta entzunaldi-izapidea egiteko eguna eta ordua finkatu ditu. Aurretiaz, hala ere, kurtsoko koordinatzaleak gurasoei horren berri emango die, eta ikasleari dagokion dokumentazioa emango dio.

c. **Ikastetxeko hezitaile-irakasleren batek jakinaren gainean egon beharko du bitartekariak familiarekin egingo duen entzunaldi-izapideari dagokionez.**

d. **Ikaslearekin eta, hala badagokio, gurasoekin edota legezko ordezkariekin entzunaldi-izapidea egitea.** Bereizita edo banaka egin daiteke. Behin-behineko neurri gisa, ikasleari ikastetxera bertaratzeko eskubidea kendu bazaio, entzunaldia gurasoekin eta ikaslearekin egin ahal izango da, elkarrekin, edota bereiz. Azken kasu horretan, hala ere, entzunaldi-izapidea egun berean egingo da.

e. Bitartekariak ikasleari **egozten zaion jokabidea eta jokabide horren kalifikazioa adieraziko ditu entzunaldiian**, Dekretuan xedatutakoaren arabera, bai eta kasuari aplika dakizkiokeen neurri zuzentzaileak ere.

f. Prozedurarekin jarraitu beharrean, **ordezko neurriak** aplikatzeko aukera dagoela jakinaraziko du. Ikastetxeak dokumentu baten bidez egingo du proposamen hori, eta ikasleari eta bere gurasoei aurkeztuko die, ados egonez gero onarprena emateko (6. eranskina).

g. Kasu horretan, hauxe adierazi beharko du: prozeduran aurreikusitako ordezko neurriak betez gero, prozedura eten egingo dela, ez zaiola Hezkuntza Ikuskaritzari jakinarazpen formalik egingo, ea horrek ez duela ikaslearen txostenean neurri zuzentzaileen inguruko ezer jasoko.

h. Ez baditzte ordezko neurriak onartzen, prozedurak aurrera jarraituko du. Amaieran, hartu diren neurriak zehazten dituen jakinarazpen bat helaraziko zao familiari, eta beste bat Hezkuntza Ikuskaritzari. Azken horrek ikaslearen txostenean jasoko ditu gertaera guztia.

i. Gurasoek eskubide osoa daukate kasuan gertaturiko egoera pertsonal, familiar edota

sozialen inguruan, prozeduraren tramitazioaren inguruan edota bestelakoen inguruan alegazioak aurkezteko. Kasu horretan, esan diezaiekegu alegazioak momentuan aurkez ditzaketela, edota 24-48 orduko epea dutela **alegazio-idazki bat** aurkezteko; idazki hori bitartekariari helarazi beharko diote. Espedientea ebazteko eskumena duen organoak aztertuko du idazki hori.

- j. Entzunaldia egin dutela egiazatzen duten dokumentuak sinatzeko eskatuko die. (5. eranskina).
- k. Bitartekariak idazkariari entregatuko dizkio entzunaldira eraman dituen dokumentuak, artxiba ditzan, etapako koordinatzaileak besterik adieraztean salbu.

■ Bitartekariak entzunaldian izan beharreko jarrera

- a. Konfiantza osoa izan behar da bitartekariarengan; minutu gutxi batzuren buruan konturatuko da gurasoek semearen edo alabaren jokabideari dagokionez zer iritzi daukaten.
- b. Bitartekariak bere jarduera guztian zehar kontuan izan beharreko FUNTSEZKO PRINTZIPIOA: DISKREZIOA. Ezinbestekoa da arazoa dagokion erreserbarekin aztertzea, eta bitartekariak ezagutzen dituen alde guztiak (bai zuzenekoak, bai zeharkakoak) sekretupean gordetzea, prozedurak berme guztiak errespeta ditzan, eta ikasle, guraso zein legezko ordezkarien eskubideak berma daitezen.
- c. Garrantzitsua da hasiera-hasieratik adeitsu agertzea, prozedurak berak duen helburu pedagogikoa islatzeko. Garrantzitsua da, era berean, uneoro tingo mantentzea.
- d. Entzunaldi-izapidean ikaslearen eta gurasoen eskubideak bermatzen direla aipatu beharra dago.
- e. Garrantzitsua da gurasoek honako ideia hau helaraztea: prozedura bera tresna pedagogiko bat da –bakarra ez bada ere–, ikasleen hezkuntza-prozesurako baliozkoa eta eraginkorra dena (Dekretuaren 22.4. art.). Beharrezkoa izanez gero, behin eta berriro esan beharra dago Ikastetxea erabat ziur dagoela prozeduraren eraginkortasun pedagogikoaz, eta esperientziak hala baieztagatzen duela.
- f. Azpimarratu beharra dago prozedura horiek ez dutela zigortzeko helburu soila – hori baita zenbait gurasok ateratzen duten ondorioa–; ikaslearen jokabidea onbideratzera zuzenduta daude gehienbat, Ikastetxeak eta gizarteak aldarrikatzen dituzten bizikidetza-printzipioetara.
- g. Zentzu horretan, ikasleak egin duen falta zehaztu aurretik, komenigarria litzateke ikasleak betebehar batzuk bete ez dituela esatea.
- h. Printzipioz, kasuan aplikatzeko araudia xehetasun guztiekin aplika daiteke, baina horrek estutu egiten ditu gurasoak. Horregatik, gurasoen hasierako jarrera egokia bada, horren legalista izatea saihestu daiteke. Azken finean, entzunaldi-izapidearen berezko helburu pedagogikoak eta ireki diren prozeduren nondik norakoak azpimarratzea da funtsezko, hizkuntza juridikoaren kateetan galdu gabe. Azken kasu horretan, izan ere, biktima «kriminalizatzen» arriskua dago, eta, hala gertatuz gero, gaiztotu egin daiteke ikaslearen lankidetzarako jarrera, eta zaildu Ikastetxeak abiarazitako protokoloa betetzeko asmoa.
- i. Gurasoek hala eskatuz gero, bitartekariak prozedura abiarazi duten agiri edota

frogak erakutsiko dizkie. Beharrezkoia izanez gero, aitorpen-egileen izenak isilean mantenduko ditu. Nolanahi ere, bitartekariak ez dizkie gurasoei agiri horiek emango, eta fotokopiarik ere ezin izango da egin. Gurasoek fotokopiak eskatuz gero, bitartekariak, modu adeitsuan, esango die ez dutela horretarako baimenik.

- j. Badakigu familiari halako kontuak jakinaraztea ez dela batere atsegina. Eta gerta daiteke familiaren erantzuna ezkorra izatea, eta neurri zuzentzaileak saihestu nahi izatea (gehiegizkoa iruditzen zielako, semearen edo alabaren txosten akademikoa «zikinduko» duelako, gaizkile baten pareko tratamendua emango zaiolako...).

Horrelako egoeren aurrean, TINKO → gogoratu bitartekariaren egitekoa ez dela atsegina, baina, gure iritzian, oso baliabide pedagogiko baliotsu eta eraginkorra da.

- k. **Berritasun nagusia: ordezko neurriak proposatzea eta prozedura bertan behera uztea.**

Horra hor bitartekariak diziplina-sistema berriaren eraginkortasun pedagogikoa gurasoei erakusteko duen baliabide nagusietako bat. Azken batean, ikaslea gizarteratzea eta ikastetxeko bizikidetza-esparruan txertatzea du helburu. Funtsean, ikasleek eta gurasoek neurri zehatz batzuk borondatez onartzean datza. Ondorengo neurri hauetakoren bat onartuz gero, prozedura eten egingo da:

- Neurri hezitzaleak borondatez onartzea (43. art.).
- Adiskidetza (44. art.).
- Kalteak konpontzea (45. art.).
- Jokabidea familiaren esparruan zuzentzea (46. art.).

Ordezko neurriak edota familiaren esparruan neurri hezitzaleak hartzea garrantzitsua dela ikusarazi beharra dago. Halako neurriak hartzean, eten egiten da prozedura, eta, aukera ezin hobea da ikaslearen jokabidea Hezkuntza Administrazioarekin paperekintzat eta jakinarazpenekin gora eta behera ibili beharrak gabe zuzentzeko.

■ Sor daitezkeen egoerak. Zere egin horrelakoen aurrean?

- a. Gurasoek, beharbada, **aholkulari batez lagunduta** joan nahiko dute entzunaldiira.
 - Bitartekariarekin entzunaldiaren eguna eta ordua zehazteko telefonoz izandako elkarrizketan **aholkulariarekin joateko asmoa dutela adierazten badute**, bitartekariak esango die aurrerago deituko diela, aukera hori baduten edo ez baiezttatzeko.
 - **Aurrez ezer esan gabe, entzunaldiira aholkulariaz lagunduta joaten badira**, entzunaldia gurasoekin soilik egin behar dela adieraziko zai o aholkulariari, eta aholkularia bertan bada ez dela entzunaldirik egingo, horretarako ahalordea duenean salbu.
- b. Bitartekariari egokia iruditzen bazaio, gurasoekin egin beharreko entzunaldian **ikaslea ere egon ahal izango da**; betiere, aurrez ikaslearekin entzunaldia egin bada.
- c. Batzuetan, prozedurapean dagoen ikaslearen esanak gezurtatzeko, beharrezkoak izaten dira **beste ikasle edo pertsona batzuen aitorpenak**. Horrelako kasuetan,

ez da inolaz ere aitorpena egin dutenen daturik eman behar, ez dezaten zigorrik jaso.

- d. Gogoan izan, bestalde, bitartekariak entzunaldiaren inguruko **hainbat ohar** jaso ditzakeela entzunaldia egin dutela egiazatzeko sinaturiko dokumentuan, prozedura ebazteaz arduratuko denak kontuan izan ditzan. Era berean, bitartekariak, adeitasunez, aukera du gurasoek neurria arintzeko edo bestelako alderdien inguruan egindako **eskaerak aintzat hartzeko**. Bitartekariaren adeitasunak agerikoa izan behar du uneoro, eta gurasoek bereziki horrelako alderditan baloratzen dute jarrera hori.
- e. Kontuan izan ikasleek edo gurasoek aukera dutela **bitartekaria arbuiatzeko**, bere jarreraren edo adierazpenen ondorioz objektiboa ez dela iruditzen bazaie.

■ Kasurako hartutako behin-behineko neurriak betearaztea:

Printzipioz, kurtsoko koordinatzalea arduratuko da horretaz, edo, hala badagokio, ikaslearen zikloko edo etapako koordinatzalea, inguruabarrak aintzat hartuta segimendua etapako koordinatzaleak edota Ikastetxeko Zuzendaritzak egitea komenigarriagoa denean salbu.

■ Ordezko neurriak betetzea eta prozedura bertan behera uztea:

Printzipioz, kurtsoko koordinatzalea arduratuko da horretaz, edo, hala badagokio, ikaslearen zikloko edo etapako koordinatzalea, inguruabarrak aintzat hartuta segimendua etapako koordinatzaleak edota Ikastetxeko Zuzendaritzak egitea komenigarriagoa denean salbu.

8) 3. unea: Prozedura amaitzea, neurri zuzentzaileak behin betiko onartuta.

Ordezko neurririk aurkeztu ezin denean edota, neurri horiek aurkeztuta ere, ikasleak edo gurasoek onartzen ez dituztenean, ikasleari egozten zaizkion jokabideak onbideratzeko aplikatuko diren neurri zuzentzaileak zehazten dituzten dokumentuak idatzi beharko dira. Batzordeko idazkariak prestatuko ditu agiri horiek, dagokion etapako koordinatzaleak edota ikastetxeko Zuzendaritzak besterik erabakitzten duenean salbu.

Hona hemen bizikidetzaren kontrako jokabideen zerrenda:

- Ikastetxeetako kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea; betiere, horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.
- Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen kontrako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude. Baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen kontrako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenean.
- Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.
- Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkariantzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaillei ez ematea edo erantzunak aldatzea.

- Ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, modu desegokian erabiltzeagatik, kalteak eragitea, edo hezkuntza-komunitateko kideen gauzei, jokabide horrek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten ez badio.
- Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako erabakiak nahita ez betetzea.
- Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haien, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariek, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
 - Beste edonori bere eskubidea balitzeko aukera galaraztea, indarkeria fisikoa erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- Autobusean edo eskolako jantokian, ordena asaldatzen duen portaera izatea, bakarka edota taldean; betiere, jokabide horrek bizikidetzari kalte larria eragiten ez badio.
- Hezkuntza-komunitateko edozein kideri lesio fisikoak eragin diezazkioketen objektuak zuhurtziarik gabe erabiltzea.
- Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere, jokabide horrek bizikidetzari kalte larria eragiten ez badio.
- Aurreko artikuluau adierazitako jokabide desegokiren bat hiruhileko akademiko berean gutxienez hiru aldiz egitea, betiere aurreko bi aldieta zuzendu egin bada eta, ikasle adingabeen kasuan, gurasoiekin legezko ordezkarieie jakinarazi bazaie.
- Ikasleak bere betebeharrak ez betetzea, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak balitzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie, eta jokabide horrek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten ez badio. (Atal hori interpretatzeko orduan, Dekretuaren 3.1 artikulua hartuko da kontuan).

Halako jokabideak zuzentzeko, neurri hauek hartuko dira:

- Bizikidetzaren kontrako jokabideari eta haren ondorioei buruz hausnarketa egitea, eta jokabidea onbideratzeko orientazioa ematea.
- Idatziz, ohartarazpena egitea.
- Gurasoen edo legezko ordezkarien aurrean, ohartarazpena egitea.
- Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edota behin betiko.
- Lan hezigarriak egitea, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak egitea, edota, hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lanak egitea; betiere, gehienez hiru hilabetez.
- Ikasgai bateko edo batzuetako eskoletara, ikastetxera edota jarduera osagarrietara, eskolaz kanpokoetara edo zerbitzuetara joateko eskubidea etetea, ikslearen gurasoekin edo legezko ordezkariekin elkarritzeta izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
- Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoamaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko

akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

- Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarriean parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.
- Jantoki-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere bizikidetzaren kontrako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.
- 7., 8. eta 9. puntuetan adierazitako neurriak ezartzeko, beharrezko izango da aurrez 1. puntutik 6.era bitartean zehaztutako neurrietako gutxienez bi aplikatzea, eta hala ere bizikidetza larriki kaltetzen duen jokabidea zuzentzeko helburua ez betetzea.

9.3 Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak

Aurreko atalean adierazi dugun bezala, bai eskema, bai gainerako xehetasunak, kalte larria eragiten duten jokabideen kasuan ere aplika daitezke.

Bien arteko ezberdintasuna jokabidearen larritasunean dago: batzuk bizikidetzaren kontrakoak dira, eta beste batzuk oso kalte larriak eragiten dituztenak.

Oso kalte larriak eragiten dituzten jokabideak ondoko hauek dira:

- Ikastetxeetako gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik eza agertzea edo obedientzia ukatzea, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurka adierazpen oso laidogarri edo iraingarriak egitea ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
- Diskriminazioa sortzen edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera pertsonal, ekonomiko edo sozial.
- Jazarpen sexista, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoak, ezarritako definizioa aintzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe do fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatuta sentiarazteko giroa sortzea bada.
- Hezkuntza-komunitateko edozein kideren kontrako eraso fisiko edo psikologikoa
- Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokabideak egitera bultzatzea; adibidez, tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.
- Bizikidetzaren kontrako jokabideak taldean egitea edo haien berri nahita zabaltzea, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinaren arteko tratu txarrak sortzen dituzten egoeretan ere. (Atal hori

interpretatzeko orduan, Dekretuaren 3.1 artikulua hartuko da kontuan).

- Liskarrak edo erasoak eragitea, edo jokabide horietan parte hartzea, lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada
- Nahita, ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan kalteak eragitea, edota ikastetxeko langileen, beste ikasle batzuen edo beste pertsona batzuen gauzetan, bai bakarka, bai taldean.
- Autobusean edo eskolako jantokian, ordena asaldatzen duten jokabideak izatea, hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzat egoera arriskutsuak sortzen baditzute.
- Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiiek, edo, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariek baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- Ikastetxeko jarduneko ekintzetan, beste norbaiten izena erabilita aritzea.
- Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukatzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutatzea edo baimenik gabe ateratzea ere.
- Apropos egin den edozein ekintza, Zigor Kodearen arabera delitura edo falta bada.
- Aurreko artikulan adierazitako bizikidetzaren kontrako edozein jokabide kurtso berean gutxienez hiru aldiz egitea, aurreko zatian jasotakoa izan ezik; betiere, aurreko bi alditan zuzenketak egin badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariei jakinarazi bazaizkie. (Atal hori interpretatzeko orduan, Dekretuaren 75. artikulua hartuko da kontuan).
- Norberaren betebeharrok ez betetzea, eta jokabide horren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei eskubideren bat urratzea; hots, osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea. (Atal hori interpretatzeko orduan, Dekretuaren 3.1. artikulua hartuko da kontuan).

Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko, bizikidetzaren kontrako jokabideen kasuan jasotako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

- Lan hezigarriak edota ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak egitea, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak gauzatzea, sei hilabetez gehienez ere.
- Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea, 3 eta 20 eskola-egun bitartean. Ikerlek ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
- Ikastetxera joateko eskubidea etetea, 3 eta 20 eskola-egun bitartean. Ikerlek ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
- Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarriean parte hartzeako eskubidea etetea, edo eskola-garraioko zerbitzua nahiz jantoki-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango

da.

1. puntuau adierazitako neurrieta bat aplikatuta ez bada bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea zuzendu, orduan aplikatu ahal izango dira 2., 3. eta 4. puntuetau adierazitako neurriak.

Ikasleren bat, aurretiaz, neurri zuzentzaile bat baino gehiago ezarri bazaizko ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izateagatik, ikastetxeko zuzendariarak aukera izango du, Dekretuko 28. artikuluko n) idatz-zatian adierazitako kasuetan izan ezik, Hezkuntzako lurralde-ordezkarriari ikasle horren matrikula beste ikastetxe batera aldatzea eskatzeko. Ikaslea adin nagusikoa bada, edo derrigorrezkoak ez diren ikasketak egiten ari bada, Urruneko Hezkuntzako Zentroetarako edo Gaueko Ikasketa Zentroetara lekualda daiteke haren espedientea. Nolanahi ere, adinez nagusia den ikasleak edo derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak egiten ari den ikasleak ez badu espedientearen lekualdaketa onartzen, baliogabetuta geratuko da ikasle horrek ikastetxean duen matrikula, eta baja emango zaio ikastetxe horretan.

Jokabidearen ondorioz berdinan arteko tratu txarrak edo jazarpen sexistak eragin edo iraunazko balira, edota jokabide horiek ikastetxeko irakasleren bati egindako erasoak badira, zuzenean proposa daiteke espedientearen lekualdaketa, nahiz eta ikasle horri aurrez neurri zuzentzailerik ez aplikatu. Beste horrenbeste egin ahal izango da hezkuntza-komunitateko beste kideren bati bereziki larria den eraso fisikoa egin bazaio.

Kasu bi-bietan (hau da, kontrako jokabideetan nahiz jokabide oso larriean), jokabide horien inguruko aitorpena jasotzen duten eredu betetzea eska dakiene lekuko izan diren ikasle zein hezitzaleei. Hona hemen kasu horiei dagozkien ereduak.



HEZITZAILEEN ADIERAZPENAK/ DECLARACIONES DE LOS/AS EDUCADORES/AS

HASIERAKO DATUAK/DATOS INICIALES

Hezitzailearen izen-abizenak/ Nombre y apellidos del educador/a:

Ikaslearen izen-abizenak eta kurtsoa/ Nombre y apellidos del alumno/a y curso:

Orri hau betetzearen data/Fecha de redacción de la declaración:

**IKASLEARI LEPORATZEN ZAION JOKABIDEAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA /
DESCRIPCIÓN DETALLADA DE LA CONDUCTA QUE SE LE(S) REPROCHA AL (LOS) ALUMNO(S)**

1. Adierazi jokabidea zein egunetan, zein ordutan eta zein lekutan gertatu zen / Día, hora y lugar en que se produce la(s) conducta(s):

.....
.....
.....

2. Aipatu ikasleari leporatzen zaion jokabidearen xehetasun guztiak eta horren inguruan baliagarriak izan daitezken datu guztiak (zer egin duen edo zer ez duen egin, zein pertsonak parte hartu duten ikaslearekin batera, zer egin duen bakoitzak, lekukorik baden, zer kalte sortu diren...)/**Señala todos los detalles de la conducta reprochable al alumno y todos los datos que pueden ser válidos para el esclarecimiento de los hechos** (qué ha hecho y qué no ha hecho, qué personas han participado en esos incidentes y qué ha hecho cada uno, apuntar si hay testigos de lo sucedido, qué daños se han producido...)

Atzealdean jarraitzen du/Sigue al dorso de esta hoja



.....
.....
.....
.....
.....
3. Beste zerbait aipatu nahi izanez gero.../Alguna otra observación que apuntar...
.....
.....
.....
.....
.....

Hezitzalearen sinadura/Firma del educador/a

Bete ondoren, kurtsoko koordinatzailari eman behar zaio/Una vez cumplimentada, se ha de entregar al Coordinador/a de Curso.

IKASLEEK BEREN JOKABIDEA ADIERAZTEKO ORRIA/ **DECLARACIÓN DE CONDUCTAS DE LOS ALUMNOS**

HASIERAKO DATUAK/DATOS INICIALES

Ikaslearen izen-abizenak/ Nombre y apellidos del alumno/a :

Kurtsoa/Curso :

Orri hau betetzearen data/Fecha de redacción de la declaración:

LEPORATZEN ZAION JOKABIDEAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA / DESCRIPCIÓN DETALLADA DE LA CONDUCTA QUE SE LE REPROCHA

1. Adierazi jokabidea zein egunetan, zein ordutan eta zein lekutan gertatu zen / Fija el día, hora y lugar en que se produce la(s) conducta(s):

.....
.....
.....

2. Adierazi leporatzen zaizun jokabidearen xehetasun guztiak eta horren inguruan baliagarriak izan daitezken datu guztiak (zer egin duzun edo ez duzun egin, zein pertsonak parte hartu duten zurekin batera, zer egin duen bakoitzak, lekukorik baden...)/Señala todos los detalles de la conducta reprochable y todos los datos que pueden ser válidos para el esclarecimiento de los hechos (qué has hecho y qué no has hecho, qué personas han participado en esos incidentes y qué ha hecho cada uno, apuntar si hay testigos de lo sucedido...)

Atzealdean jarraitzen du/Sigue al dorso de esta hoja




3. Beste zerbait aipatu nahi izanez gero/Alguna otra observación o sentimiento que apuntar...

Firma del alumno/a Ikaslearen sinadura	Firma del padre, madre o tutor legal y fecha de recepción de la comunicación/Aitaren, amaren edo legezko tutorearen izenpea eta ohartarazpen hau jasotzearen data
Sinadura/Firma:	Firma:
Data/Fecha:	Fecha:

Bete ondoren, kurtsoko koordinatzaileari eman behar zaio/Una vez cumplimentada, se ha de entregar al Coordinador/a de Curso.

10. Antolakuntza

Ikastetxean ikasle ugari daudenez (1.600 inguru), behar bezala funtziona dezan, funtsezko da patioen, jantokien, instalazioen eta abarren erabilera ondo antolatuta egoteara. Jarraian, arlo horietako bakoitzaren xehetasunak ikusiko ditugu. Aipatuko ditugun lekuak ondo koka ditzazu, Ikastetxearen plano bat daukazue hemen.



10.1 – Ateak irekitzea eta ixtea

Ikastetxea gutxi gorabehera 7:30-22:30 bitartean egongo da irekita. Ordutegia zertxobait alda daiteke, egutegiaren arabera.

Ateak ireki eta ixteaz, sarrera zaintzeaz, autoen aparkatzea antolatzearaz, eta haurrak autoetatik jasotzeaz, hainbat langile arduratzentz dira. Sakelako bat daukate, jakinarazi beharreko edonolako arazo gertatzean erabiltzeko.

Pertsona horietako bakoitzaz zehazki zertaz arduratzentz den jakin nahi izanez gero, begira itzazue egutegia eta haietako bakoitzaren eginkizunen fitxa.

Hona hemen ateak zein ordutan irekitzen eta ixten ditugun:

Goizean	7:30 – 9:25
Eguerdian	12:45 – 13:40
	14:45 – 15:05
Arratsaldean	16:45 – 17:30 * Asteazkenetan: 15:45 – 17:30

Batxilergoko ikasleei dagokienez, astelehen, asteazken eta ostiraletan eskolak 14:20etan bukatzen dituztenak Ategorrieta Galtzada Zaharreko atetik irtengo dira.

10.2 – Ordutegia zabaltzeko zerbitzua

Guraso askok familia eta lana uztartzeko dauzkaten arazoez jabetuta, Ikastetxean ordutegia zabaltzeko zerbitzua eskaintzen diegu Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleei.

- HAUR HEZKUNTZA: Goizean, 7:30etik aurrera
Arratsaldean, 16:50etik 18:00etara
- LEHEN HEZKUNTZA: Goizean, 7:30etik aurrera.

10.2.1 - Goizean

Honela antolatzen dugu:

ORDUA	HH	LH (Denak)
7:30-8:00	HHko ikasgela	
8:00-9:20	HHko ikasgelak/patioak	Psikomotrizitate gela/LH patioa

Gurasoek ezin izango dute patioetan sartu; ikasleak bakarrik sartu ahalko dira. Bestalde, ataletako hesiak –patioen goiko aldea eta beheko aldea bereizten dituztenak– itxita egon beharko dira.

Ikasgelan sartzerakoan, Haur Hezkuntzako ikasleek eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek (1. eta 2.) ilarak osatuko dituzte Haur Hezkuntzako patioan.

Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetakoek Lehen Hezkuntzako patioan osatuko dituzte ilarak (Ikastetxearen behealdean).

10.3 Autobusez iristean eta ateratzean kontuan izan beharrekoak

10.3.1 Iristean

San Ignacio de Loyola Ikastetxearen kokapena ez da oso egokia autoz nahiz autobusez iristeko; horregatik, auto-ilara handiak sortzen dira errepidean, errei bakarrekoa baita, eta estua gainera. Horrelako arazoak ekiditeko, eta herritarren artean bizikidetasun-espiritua bultzatzeko, honela antolatuko gara.

Autobus-zerbitzuaren arduraduna, 9:00etatik aurrera, autobusen iritsiera antolatzen ibiliko da Ikastetxeak Galtzada Zaharrean duen atean.

Autobus-zerbitzuko begiralek dagokien patioraino eraman beharko dituzte haurrak.

10.3.2 Ateratzean

Gainerako ikasleak atera baino 20 minutu lehenago, autobus-zerbitzua erabiltzen duten ikasleak begiraleaz lagunduta aterako dira, eta begiraleak autobuseraino eramango diru.

10.4– Autoz iristean eta ateratzean kontuan izan beharrekoak

Aurreko atalean adierazitako arazoa dela-eta, funtsezkoa da seme-alabak Ikastetxera autoz ekartzen dituzten senideen iritsiera antolatzea.

Familiek, seme-abalak sarreran uzteko edo hartzeko asmoz autoa aparkatu nahi izango balute, ez lukete horretarako lekurik aurkituko, eta espaloian utzi beharko lukete autoa, beste ibilgailuen igarobidea eragotziz, eta oinezkoen pasabidea ere oztopatuz. Horregatik, Ikastetxean hainbat pertsona egongo dira, ikaslea autotik ateratzeko: autoa Ikastetxeko atarira iristean, ikaslea autotik atera, eta dagokion patiora eramango dute, edota alderantziz: patioan jaso, eta autoraino eramango dute. Zerbitzu hori Haur Hezkuntzako ikasleei bakarrik eskaintzen diegu.

Inor bila etorri gabe gelditu diren ikasleak Ikastetxeko Harrerara eraman beharko dira, eta handik haien familiarekin jarriko dira harremanetan.

10.5– Jantokia eta jan ostekoak

Bazkaltzen gelditzen diren ikasleak asko direnez, hiru jantoki dauzkagu Ikastetxean:

- 1. jantokia: Lehen Hezkuntzako eraikinaren beheko solairuan dago, eta Haur Hezkuntzako ikasleek erabiltzen dute.
- 2. jantokia: Nobiziatu-eraikineko 0 solairuan dago, eta Lehen Hezkuntzako 1.ko ikaslek eta DBHko 1.koek erabiltzen dute.
- 3. jantokia: frontoiaren eta Batxilergoko eraikinaren artean dago. Lehen Hezkuntzako (1.koek izan ezik), DBHkoek (1.koek izan ezik) eta Batxilergokoek erabiltzen dute.

Jantokian eta jan ostekoan, bi figura garrantzitsu arduratzen dira funtzionamendu egokiaz eta bizikidetzaren zuzentasunaz.

10.5.1 – Jantokiko arduraduna

Ondoko **eginkizun** hauek izango ditu:

- Jantokiko funtzionamendua kontrolatzea, zuzentzea eta ebaluatzea.

Ikasleei dagokienez:

- Ikasleak jantokira sartzeko modua arautza eta ordenatza.
- Ikasleei bazkaria hartzera joan daitezkeela adieraztea.
- Bazkaria hartzean, ikasleen jokabide egokia sustatzea.
- Ikasleei berandu, goizegi edota ordu egokian iritsi direla adieraztea.
- Ikasleen jokabidea zuzena dela egiaztatzea.
- Ikasleek ikaskideak nahiz langileak errespetatzen dituztela egiaztatzea.
- Mahaian zuzen daudela begiratzea (oihukatu gabe, zutitu gabe, janaria bota gabe...), eta jokabide desegokiak zuzentzea.
- Falta arinak zuzentzea. Hori begiraleek ere egin ahal izango dute.
- Egokia irudituz gero, zigorrak *in situ* ezartzea.
- Ikasleek egindako falta larriak Ausolaneko koordinatzaileari jakinaraztea. Koordinatzaile horrek dagokion koordinatzaileari adieraziko dizkio (Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa). Nolanahi ere, begiraleak eta koordinatzaileak harremanetan izango dira, ohiki.

Begiraleei dagokienez:

- Begiraleak bizikidetzaren eta diziplinaren aldetik kontrolatzea.
- Gorabeherak prebenitzearren, egoera batzuetan adi ibiltzeko eskatzea.

Bazkariari dagokionez:

- Janari-kopurua egokia den egiaztatzea (soberan ote dagoen, gutxiegi, errepikatzeko aukerarik baden...).
- Menu mota egokia den begiratzea, jantokian ondo jaten den aztertzea...

Arduradunak erabateko mugimendu-askatasuna izango du, bai jantokian bertan, bai sarbideetan.

Arduraduna ikasleen faltak erregistratzeaz arduratuko da (7. eranskina). Falta larriak, errepikakorrik edota haren ustez neurri hezitaile bat behar dutenak etapako koordinatzaileari jakinaraziko dizkio.

10.5.2 Begiraleak

Eguerdietan Ikastetxeen gelditzen diren ikasleen arduraduna begiralea da. Denbora horretan, begiralea arduratuko da ikasleez, eta berak adieraziko dizkio dagokion pertsonari denbora-tarte horretan gertatutako falta guztiak.

Begiraleen **eginkizunak** aldatzen doaz etapaz etapa.

A. Lehen Hezkuntzan:

- Jantoki-zerbitzua erabiltzen duten ikasleak ikasgelatik jantokira eramatea, ordena eta diziplina zainduz.
- Jantokira doaznen segimendua egitea; hau da, hirugarren ziklokoen bertaratzea kontrolatzea, kurtsoko arduradunei zerrendak emanez.
- Ziklo bakoitzeko koordinatzaileari jantokiko ikasleen faltak eta gertaerak jakinaraztea.
- Higienarekin lotutako ekintzak gainbegiratzea (eskuak eta hortzak garbitzea).
- Haurrei erretiluak eramatzen, jaten eta abar laguntzea; 1. ziklokoei, batez ere.
- Haurrek dagokien eskolaz kanpoko jarduerara eramatea; 1., 2. eta 3.ekoak, batez ere.
- Haurrekin BETI euskaraz mintzatzea, nahiz eta haien begiraleari gaztelaniaz hitz egin.
- Gurasoen aurrean bereiztea (AUSOLAN irudia).
- Gutxienez hiru hilabetean behin, Lehen Hezkuntzako koordinatzailarengana joatea, antzeman dituzten zaitasunak edo gertaerak jakinarazteko, edota dagozkion jarraibideak jasotzeko.

Patioan:

- Bakoitzak non egon behar duen eta zein haur-talde zaindu behar duen jakitea. Leku estrategikoetan egon behar dira (komunetan, Musikabiko eskaileretan eta pasilloan, atzeko eskaileretan eta patio estalian, gela ludikoan, patioaren gainerakoan). Gogoan izan HAUR GUZTIEN arduradun direla.
- Haurren esanak entzutea eta laguntzea. Aholkuak ematea. Sor litezkeen gatazken aurrean, irizpide hezitzailarekin jardutea.
- Beren ardurapean dauden guztiak zaintza, gutxi batzuk zaintzera mugatu gabe. (Begiraleek alde batetik bestera ibili behar dute, adi, eta ez taldean berriketan, eserita, edota hiruzpalau umeri begira).
- Gerta litezkeen istripu txikietan jardutea, eta, beharrezkoa izanez gero, Osalaketara deitzea. Horrelako kasuetarako, arduradun batek egon beharko luke, arbitrariotasun subjektiboak ekiditeko.

- Dagokionari, jantoki-denboran edota jan-ondorengo denboran Ikastetxetik alde egin duen haurra falta dela jakinaraztea.
- 14:55ean, ikasleak dagozkien ilaratara eramatea, eta, txirrinak 15:00etan jo arte, ordena zaintza. Ikasgelan sartu arte, erreferentea izatea.

Horretarako:

- Beren ardurapean dauden ikasle guztiak ezagutu behar dituzte.
- Jantokira apuntatuta dauden ikasle guztien zerrenda eguneratua eduki behar dute.
- Ikastetxearen ildoekin bat datozen irizpide hezitzaleak erabili behar dituzte.
- Jantokiko Arautegia ezagutu behar dute, aplikatu ahal izateko.
- Eguedietako eskolaz kanpoko jardueretan apuntatuta dauden ikasle guztien zerrenda eguneratua eduki behar dute.
- Bertaratzea kontrolatzeko orria eduki behar dute.
- Bakoitzak argi eta garbi jakin behar du bere egitekoa zein den eta non egon behar duen.
- Arduradunarekin bilerak egin behar dituzte (AUSOLAN)

B. DBHn

Badakigu adin hauetako gazteak «zaintza» ez dela lan erraza. Horregatik, hiru hilean behin egingo dugu ebaluazio bateratua, hobetzeko proposamenak aztertuz. Oso garrantzitsua da ondoko alderdi hauek gogoan izatea:

- Icasleez arduratzen diren pertsonak ere hezitzaleak dira: ikaslei aplikatzen zaizkien arauak ikasleen arduradunek ere bete behar dituzte.
- Uneoro dira ikasleen arduradun: zer egiten ari diren, non dauden... jakin beharra daukate.
- Icasleek zaindu egin behar dituzte Ikastetxearen instalazioak (txukun eta garbi mantendu).
- Icasleek errespetatu egin behar dituzte instalazioetako errtoluetako oharrak: liburutegirako eta autoetarako eremuan ez egon, DBHko sarreran baloiarekin ez jolastu, DBHko sarrerako eskaileretan ez eserit...
- Begiraleek egunero begiratu beharko dituzte Administrazioak emandako zerrendak, eta gertaera guztiak dagokion koordinatzialeari jakinarazi beharko dizkiote.

Hona hemen DBHko ikasleek bete beharreko oinarrizko arauak, begiraleek betetzen direla egiaztu beharrekoak:

- Derrigorrean joan behar dute jantokira.

- Jantokiko falten justifikazioak lehen zikloko koordinatzaileari, DBHko 3.ekoari edota DBHko 4.ekoari eman behar zaizkio, kasuan kasu. Pertsona horietako bat ere topatzen ez den kasuetan, DBHko koordinatzailearengana ere jo ahal izango dute.
- Eguerdienan Ikastetxetik atera ahal izateko, idatzizko baimena beharko da, eta aurreko atalean adierazitako pertsonen jakinaren gainean egon beharko dute.
- Ikerleek ezin izango dute bazealdu ondoren Ikastetxetik atera (15:45 h; orduantxe irekitzen da atea, etxean bazealdu dutenak sar daitezzen).
- Debekatuta dago Ikastetxeko esparruan erretzea eta txikleak edo pipak jatea.
- Debekatuta dago Ikastetxera telefono mugikorrik eta musika-gailuak ekartzea.

10.5.3 Patioen banaketa

Bazealdu ondoren, ikerleak ondo antolatzeko eta gatazkak ekipatzeko, kurtso bakoitzeko ikerleek eremu bat daukate esleituta. Etapa bakoitzeko begiraleek badakite zein eremu dagokion kurtso bakoitzari, eta ikerleak dagokien lekuaren daudela egiaztatuko dute.

- Eremuak esleitzeko orduan, kontuan hartu dugu batzuetan euria egiten duela.
- Ezin da eraikinetan sartu –eskolaz kanpoko jardueren kasuan salbu–.
- Kurtso bakoitzekoek, dagokienean hartuko dute belar artifizialeko zelaiaaren zatia (zelaiaaren laurdenea) (C eremua). Bertan, futbolean baino ezin izango da jokatu; beste edozer egiteko, zelaitik atera egin beharko dute. Bertan jokatu beharko da futbolean, eta ez etxoletan, ez zuhaitzen ondoko belardian.

Ohar orokorrak:

- Denek erabiltzeko instalazio bat da, baina zentzuz eta txukun. Kurtso bakoitzak egun bat izango du zelaian jokatzeko.
- Zelaia futbolean jokatzeko erabili behar da. Beste jarduera batzuetarako, beste eremu batzuk egokituko ditugu, kanpoaldean.
- Zelaia bi zatitan banatuta dago; futbol 7ko bi zelai ditu. Lehen Hezkuntzakoek beren eraikinaren aurrean dagoen zatia erabiliko dute, eta Bigarrenekoek beste zatia.
- Zelaian, baimena duenak eta baimena duen orduetan bakarrik sartu ahal izango dira. Ordu horietatik kanpo, ezin da zelaian sartu (adibidez, eskolak baino lehen, eskoak bukatutakoan...).
- Zelaian, baimendutako lekuaren jokatu behar da.

Ohar bereziak:

- Debekatuta dago zelaian jatea. Jolas-orduan egonez gero, hormigoizko eremuan jan behar da, zelaira sartu baino lehen.
- Txikleek, pipek, eta abar asko kaltetzen dute zelaia. Horregatik, debekatuta dago horrelakoak patioan jatea.
- Zelaian ezin da multzori sortu, eta ezin da eserita edo etzanda egon.

Zelaia futbolean jokatzeko da.

- Ez manipulatu eta ez kaltetu belarra eskuekin. Ez tira egin. Ez zulatu objektu zorrotzakin.
- Ez zintzilikatu ateetatik, ez ukitu sareak, eta ez manipulatu.
- Ez kolpatu hesiak, eta ez igo horietara.

- Ikasleak, ikasgelatik atera eta baziak joateko ilaran jarri arte, «beheko» eremuko patioetan egon behar dira, dagozkien begiraleen kontrolpean.
- Ezin da Ikastetxetik atera.
- Eguerdian, ezin da sukaldaren ondoko jantokiko eskaileretik jaitsi.
Eraikin berriaren ondoko eskailerak erabili behar dira.

10.6- Autobus-zerbitzua

Hona hemen autobus-zerbitzuak modu egokian funtzionatzeko ohar orokor batzuk.

- Begiralea, ahal izanez gero, autobusaren atzealdean joatea komeni da, handik ikusten delako ondoen autobusaren barruan gertatzen ari dena.
- LEKU FINKOAK: Hori begiraleak erabakiko du. Kurtsoan zehar gerta litezkeen gorabeherak aintzat hartuta, ikasleren bat lekuz aldatzeko erabakia har dezake.
- Musika bakarrik. Bideorik ez. Zintarik ez.
- Bidean gorabehera adierazgarririk gertatuz gero, begiraleek Ikastetxeari jakinarazi beharko diote.
- Goizean, Ikastetxera iritsitakoan, ikasle guztiak –txikienak, batez ere– Ikastetxeen sartu direla egiaztatu behar dute, eta ilaran jarri behar duten lekuraino lagunduko diete.
- Ikasleak ate bakar batetik igoko eta jaitsiko dira autobusetik, eta begiraleak lagundi egingo die. Beste atea itxita egongo da.
- Ikastetxetik itzultzeko bidaian, ikasle guztiak autobusean sartu ondoren igoko da begiralea autobusera, eta inor falta ez dela egiaztatu ondoren, edota autobusen arduradunak oniritzia eman ondoren.
- Autobusen arduradunak oniritzia eman arte, autobus bat ere ez da Ikastetxetik aterako.
- Ikasleren batek autobusa galtzen badu, Harrerara joan beharko du; han, familiarekin harremanetan jarriko dira.
- Geltokian ez badago ikaslea jasotzeko inor –haurrak txikiak izanik– begiraleak azken geltokiraino eramango du haurra, eta Ikastetxeari horren berri emango dio. Ikastetxea gurasoekin harremanetan jarriko da, haurraren bila joan daitezen.
- Ikasleren batek ez badu autobusa erabili behar (gurasoak Ikastetxera bila joango zaizkiolako, eta abar), idatziz tutoreari jakinarazi beharko dio (Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan) edota koordinatzaileari (DBHn eta Batxilergoan). Horiek autobusen arduradunari jakinaraziko diote.

11. Bizikidetza eskolako curriculumean.

San Ignacio de Loyola ikastetxeak, bere eginkizuna eta izaera erlijiosoa kontuan hartuta, legez finkatutako oinarrizko gaitasunei beste bat erantsi die: gaitasun *espirituala*, hain zuen ere.

Gelan bizikidetza lantzko orduan, ondoko gaitasunetan oinarritzen gara: gizarte- eta hiritar-gaitasunean, eta gaitasun espiritualean..

Jesusen Lagundiko Loiolako Probintziak gaitasunen matrize bat egin zuen, zegozkien azpigaitasunak eta adierazleak zehaztuta, esparru horretako ikastetxe guztietarako.

Jarraian, bi gaitasunak dituzue, bakoitzak bere azpigaitasun eta adierazleekin, ikasleak arlo horretan gaitasuna lortu duen egiazatzeko.

a. GIZARTE ETA HIRITAR GAITASUNA (6. gaitasuna)

Gure gizarteko errealitatea ulertzea, hiritartasun demokratikoa sustatzeko aniztasuna errespetatuz.

- 6.1. azpigaitasuna: Elkarrizketa. Ikaskideekin eta irakasleekin elkarritzetako izatea, besteen esanak entzunez eta modu argi eta baikorrean hitz eginez, jokabide demokratikoak sustatzeko eta akordioak lortzeko.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Aktiboki entzuten du besteek esaten dutena, eta errespetatu egiten ditu.
- Galderak egiten dizkie ikaskideei nahiz irakasleei.
- Adierazpen egokiak erabiltzen ditu, errespetuzkoak, ahozkoak eta bestelakoak.
- Argi adierazten du bere iritzia.

DBHrako adierazleak:

- Modu egokiarekin entzuten ditu besteen esanak, kritikoak izan arren.
- Galdera irekiak egiten ditu besteen ideia eta iritziak hobeto ulertzeko.
- Bere adierazpenetan, ez ditu besteak erasotzen.
- Gorputz-adierazmen egokia eta koherentea du.
- Ondo antzematen da bere iritzia zein den.

Batxilergorako adierazleak:

- Bere solaskideek arretaz entzuten dituztela nabari dute.
- Bere galderen bidez, elkarrizketak aurrerapausoak ematen ditu.
- Hitzen bidezko eta gorputzaren bidezko adierazpenak oso garbiak eta koherenteak dira.
- Errespetu osoarekin eta garbi esaten du pentsatzen eta sentitzen duena.
- Modu konstruktiboan egiten ditu kritikak, solaskideen sentimenduak mindu gabe.

- 6.2. azpigaitasuna: Gizartea ezagutzea. Gizarteko errealitatea ulertzeari eta gizarte pluralean hiritar demokratikoa izatea, gizartea bera hobetzeko.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Bere kulturaren eta gizartearren ezaugarriak, tradizioak eta ohiturak ezagutzen ditu.
- Jasotako informazioa antolatzeko, diagrama eta eskema xumeak egiten ditu.
- Gizartean dauzkan eskubideak eta betebeharrak ezagutzen ditu.

DBHrako adierazleak:

- Bere kulturaren ezaugariak, tradizioak eta ohiturak identifikatzen ditu.
- Informazio kulturala antolatzeko, diagramak eta eskemak egiten ditu.
- Sistema demokratikoaren ezaugariak eta balioak ezagutzen ditu.

Batxilergorako adierazleak:

- Analisi kulturaleko lanak egiteko, kritikoki aztertzen du jasotako informazioa.
- Bere inguruko gertaera kulturalei buruzko iritzia osatzeko, kausa anitzeko analisia egiten du.
- Irizpide moral eta erlijiosoak erabiltzen ditu arlo demokratikoan erabakiak hartzeko.

➤ 6.3. adierazleak: Lana taldean egitea. Taldeko lanetan aktiboki parte hartzea, konfiantza landuz, eginkizuna denen artean ondo eta eraginkortasunez betetzeko.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Erantzukizunak onartzen ditu, eta taldeak esleitu dizkion lanak egiten ditu.
- Taldeko kide guztiak ezagutzen eta onartzen ditu, eta haien lankidetza aritzen da.
- Taldean ideiak, iritziak eta iradokizunak ematen ditu.
- Taldeak helburua betetzearen egindako lana aintzat hartzen eta baloratzen du.

DBHrako adierazleak:

- Finkatutako epean egiten ditu taldean esleitu zaizkion lanak.
- Modu aktiboan egiten du taldean lan, bere ezagutzak eta iritziak partekatuz.
- Taldearen eginkizunak antolatzen eta banatzen laguntzen du.
- Helburuak zehazten eta ulertarazten laguntzen du.
- Hala egokitzen zaionean, saioak eraginkortasunez zuzentzen ditu.

Batxilergorako adierazleak:

- Bere eginkizunak betetzeaz gain, taldeko beste kideenak ere bideratzen eta errazten ditu.
- Taldekideen partaidetza bultzatzen du, eta emaitzak hobetzen laguntzen du.
- Txukuna da, eta eraginkortasunez banatzen ditu eginkizunak, eskura dauzkan baliabideekin.
- Helburu komunak adosten ditu, eta helburu horiek betetzeko eta hobetzeko ahalegina egiten du.

➤ 6.4. azpigaitasuna: Bilakaera historikoa ulertzea. Bilakaera historikoa ulertzea, herrialdeetako politikaren, gizartearen eta ekonomiaren garapena aztertu, orainaren gainean ikuspegi kritikoa izateko eta orainarekin bat egiteko.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Garai historiko ezberdinak gertaera politiko, sozial eta ekonomikoak ezagutzen ditu.
- Historian zehar gertatutako aldaketa politiko, sozial eta ekonomiko nagusiak identifikatzen ditu.
- Iraganeko eta oraingo gertaera historikoak ezagutzen ditu.
- Inguruko gertaera historikoak ezagutzeko, baloratzeko eta errespetatzeko interesa

agertzen du.

DBHrako adierazleak:

- Prozesu ekonomiko, sozial eta politiko desberdinen oinarrizko kontzeptuak ezagutzen ditu.
- Iragana eta oraina irizpide egokiekin kokatzen eta interpretatzten daki.
- Iturri eta analisi historikoak erabiltzen ditu prozesu historikoak erabiltzeko.
- Gertaera eta prozesu historiko esanguratsuenak denboran eta espazioan kokatzen ditu.
- Aldaketa-prozesuetan izaten diren faktoreak identifikatzen ditu.

Batxilergorako adierazleak:

- Prozesu ekonomiko, sozial eta politikoetako oinarrizko kontzeptuak ulertzten eta kritikok baloratzen ditu.
- Gertaera eta prozesu historiko esanguratsuenak denboran eta espazioan kokatzen ditu.
- Iturri historikoetara, ikerketara eta analisi kritikora jotzen du prozesu historikoak zergatien bidez aztertzeko, ulertzeko eta azaltzeko.
- Zehaztasun handiz alderatzen ditu kontzeptu, teoria eta prozesu sozial, ekonomiko eta politikoak, eta haien arteko harremanak aztertzen ditu.
- Gaur egungo gertaerak edo egoerak aztertzeko, aurrekari historikoetara eta inguruabar baldintzatzaleetara jotzen du.

➤ 6.5. azpigaitasuna: Gatazkak konpontzea. *Gatazken aurrean, jokabide positibo eta konstruktiboa izatea, eta norberaren iritziak hausnartu eta baikortasunez defendatzea, ikuspuntu ezberdinak bateratzeko asmoz;*

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Gatazkak edo eztabaidak sortzean, tonu eta hizkera egokiak erabiltzen ditu.
- Bere iritzia argudiatzen eta defendatzen du.
- Irtenbideak eta adostasunak bilatzen ditu, besteen iritziak errespetatuta.
- Gatazketatik ikasi egiten du, eta ondorioak ateratzen ditu.

DBHrako adierazleak:

- Gatazkak gainditzean eta egoerak aztertzean, ondo kontrolatzen ditu emozioak.
- Baikortasunaz eta estrategiez baliatzen da bere iritzia planteatzeko eta defendatzeko orduan.
- Konponbide egokiak bilatzeko prozesuan, ikuspuntu kontrajarriak bateratzen ditu.
- Gatazkak aldaketa eta berrikuntza eragiteko dituen aukerak baloratzen ditu.

Batxilergorako adierazleak:

- Gatazkari dagokionez, berak eta besteek emozioak dituztela jabetzen da.
- Malgutasunez erabiltzen ditu negoziazio-prozesuak eta hainbat estrategia aztertzen ditu.
- Gatazka konpontzerakoan, lankidetza eta adostasuna sustatzen ditu.

➤ 6.6. azpigaitasuna: Aniztasuna errespetatzea. *Ezberdinak diren pertsonen errespetuz jardutea, tolerantziaren eta bakean bizitzeko aniztasun kulturala eta soziala beharrezkoak direla ulertuta.*

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Bere inguru hurbileko desberdintasun pertsonal, kultural eta sozialak onartzen ditu.
- Sexu, arraza zein nazionalitate desberdineko pertsonekin modu egokian jarduten du.
- Bere komunitateko eta herrialdeko ezaugarri kultural eta historikoak ezagutzen ditu.

DBHrako adierazleak:

- Ez ditu pertsonak sozialki edo kulturalki desberdinak izateagatik diskriminatzen.
- Bizikidetza pertsona desberdinen elkarrekintzaren fruitua dela ulertzen du.
- Bere komunitateko, Espainiako eta munduko aberastasun historikoa errespetatzen eta baloratzen du.

Batxilergorako adierazleak:

- Kulturen elkarreraginaren eta integrazio sozialaren aldekoa da.
- Beste kultura eta maila sozial batzuetako jendea bere prozesu pertsonalean txertatzen du.
- Beste kultura batzuetako balioak bereekin batera biltzen ditu.

➤ 6.7. azpigaitasuna: Erantzukizunak hartzea. Norbera bere ikaskuntzaren eta jokabideen erantzule egitea, gizartean kide aktibo gisa jarduteko.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Gainbegiratze edo laguntza gutxirekin, bere espazioa antolatzen du eta lanak egiten ditu.
- Agindutako lanak egiten ditu, eta materialak txukun eta garbi izaten ditu.

DBHrako adierazleak:

- Egintza kulturalei buruzko informazioa hainbat iturri bibliografiko eta digitaletan bilatzen du.
- Hala ikasgelan, nola etxean, langilea dela igartzen zaio.
- Txukuna da lanetan, koadernoetan eta materialetan.

Batxilergorako adierazleak:

- Jasotzen duen informazioa antolatzen eta egituratzen du, geroago erabiltzeko.
- Ikasteko eta lan egiteko orduan, erritmo erregularra du.

b. GAITASUN ESPIRITALUA (9. gaitasuna)

Personaren dimentsiorik sakonenera iristeko gaitasuna da, modu zentzudunean bizitzen laguntzen duena, eta transzentalaren misteriora bideratzen duena.

- 9.1. azpigaitasuna: Nork bere burua ezagutzea. Barne-sentimendu eta emozioak hautematea, identifikatzea eta erabiltzea, barne-begiradaren eta isiltasunaren bidez nork bere burua modu positiboan lantzeko eta pertsona bezala hazteko.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Helduaren laguntzarekin, gorputz-sentipenak identifikatzen eta esperimentatzen ditu, hainbat dinamikaz baliatuz: erlaxazioa, autokontrola, isiltasun-tartea, kontenplazioa...
- Barne-munduko oinarrizko sentimenduak eta emozioak identifikatzen ditu.
- Helduaren laguntzarekin, hainbat teknika erabiltzen ditu barne-isiltasuna lortzeko.

DBHrako adierazleak:

- Erlaxazio- eta meditazio-teknikak erabiltzen ditu bere hazkunde-prozesuan aurrera egiteko.
- Gidari baten laguntzaz, bere sentimendu eta emozioen esanahia ulertzen du, pertsona gisa hazteko.
- Gidari baten laguntzaz, barne- eta kanpo-isiltasuna sortzeko hainbat modu esperimentatzen ditu, bere emozio eta sentimenduak lantzen joateko.

Batxilergorako adierazleak:

- Bere adinari dagozkion erabakiak hartu baino lehen, bere barne-munduan sakontzen du.
- Erabakiak hartzerakoan, heldutasunez eta koherentziaz lantzen ditu bere sentimendu eta emozioak.
- Bere burua aztertzeko hainbat teknika ezagutzen eta erabiltzen ditu (erlaxazioa, meditazioa, hausnarketa...).

- 9.2. azpigaitasuna: Harridura, misterioa eta galderak. Bizjari zentzua aurkitzearen, harridura, misterioa eta galderak uztaizten dituzten esperientziak bizitzea, kontenplatiboa izanik.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Laguntzarekin, naturaren eta gizakien sorkuntzen aurrean, harritzeko eta miresteko gaitasuna garatzen du.
- Bere inguru hurbilean, gai moralei eta gizakien arteko harremanei buruzko galderak egiten dizkio bere buruari (zer dago ongi, zer dago gaizki), eta erantzunak bilatzen ditu (familia eta lagunak).
- Irakaslearen laguntzarekin, zientziak galdera batzuei erantzunik eman ezin diela aitortzen du.

DBHrako adierazleak:

- Gizakiaren sormen-gaitasuna baloratzen du, bai eta gizateria eta kreazioa garatzeko egin duen ekarpena ere.
- Bizitzaren oinarrizko alderdiei buruzko galdera zentzudunak egiten dizkio bere buruari (familia, harremanak), eta erantzunak bilatzen ditu. Kanpo-laguntza onartzen du.
- Alderdi existentzialei buruzko galderak egiten ditu; batez ere, norberaren nortasuna

bilatzearekin lotuta.

Batxilergorako adierazleak:

- Garapen jasangarriaren kultura gizartea eraldatzeko baliabidea dela defendatzen du.
- Erabaki garrantzitsuak hartzeko orduan, alderdi nagusiekin (bizitza, heriotza, bokazioa, etika...) koherentea den iritzien sistema artikulatzen du.
- Galdera existentziialei zientziaren, filosofiaren nahiz erlijioaren ikuspuntutik ematen zaizkien erantzunak ulertzen eta onartzen ditu, eta, modu koherentean, erantzun horietako baten alde egiten du.

➤ 9.3. azpigaitasuna: Balioak. Kristautasunaren tradizioko balioak identifikatzen eta baliatzen ditu, aukerak egitean irizpide gisa erabiltzeko eta askatasun osoz haiek bat egiteko.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Bere egunerokoan, balioak eta kontrabalioak ezagutzen ditu.
- Heldu baten laguntzarekin, balio horiek bereganatzen ditu.
- Heldu baten gidaritzapean, «askatasunez» aukeratzen ditu balio horiek.
- Motibazioak bultzatuta hartzen ditu konpromisoak.

DBHrako adierazleak:

- Balioak zer diren adierazten du, eta kristautasunaren tradizioko balioak ezagutzen ditu.
- Heldu batek egindako proposamenean oinarrituta garatzen ditu bere balioak.
- Bizitzan aukerak egiteko dauzkan mugez eta gaitasunez jabetzen da.
- Proposatzen dizkioten ekintza altruista xumeekin bat egiten du.

Batxilergorako adierazleak:

- Kristautasunaren balioak bere bizitzarako funtsezkoak direla aitortzen du.
- Balioak bere modura hierarkizatzen ditu.
- Erabakiak bere balioen hierarkian oinarrituta hartzen ditu.
- Ekintza altruiestan bere ekimenez parte hartzen du.

➤ 9.4. azpigaitasuna: Dimentsio komunitarioa. Besteekin harremanetan dagoen subjektua dela konturatzea, bere nortasuna lantzeko eta garapen osoa lortzeko.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Talde bateko kide dela sentitzen du.
- Laguntzarekin, familiaz kanpoko erreferentziek bere nortasunean duten eraginaz jabetzen da.
- Heldu baten laguntzarekin, pertsona bezala hazten ari dela konturatzan da.

DBHrako adierazleak:

- Besteengandik jasotzen duela eta berak ere ematen duela aitortzen du.
- Laguntzarekin, besteekin dituen harremanek bere izaera duten eraginaz konturatzan da.
- Pertsona bezala hazteko prozesuan lagungarri diren harremanak zein diren bereizten du.

Batxilergorako adierazleak:

- Besteengandik jasotzen duguna eta besteei ematen dieguna ezagutzen ditu.
- Besteekin eta gizartearekin duen harremanean sortzen zaizkion esklabotzak

ezagutzen diitu.

- Esklabotza horiek askatasuna murrizten dutela eta heldutasun osoa lortzeko eragozpen direla konturatzen da.

➤ 9.5. azpigaitasuna: Errealitatea gupidaz behatzea. Errealitatea kritikoki aztertzea, egoerekin eta pertsonekin enpatizatzu, ordezko perspektibatan kokatzeko.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Laguntzarekin, inguru hurbilean geratzen denaz jabetzen da: lagunak, ikaskideak, familia...
- Irakaslearen laguntzarekin, gertatutakoaren hausnarketa kritikoa egiten du.
- Irakaslearen laguntzarekin, protagonisten larruan jartzen da.
- Ulertzten ditu helduak proposatutako aukerak, eta koherentziak egiten du hautua.

DBHrako adierazleak:

- Helduaren orientabideei esker, bere hurbileko errealitateaz jabetzen da: lagunak, ikaskideak, familia...
- Gogoeta kritikoa egiten du, eta, zehaztutako ildoen arabera, alderdi positiboak eta negatiboak adierazten ditu.
- Zintzotasunez eta modu gidatuan jartzen da protagonisten larruan.
- Ulertzten ditu helduak planteatutako aukerak, koherentziaz egiten du hautaketa, eta bere hautua argudiatzen du.

Batxilergorako adierazleak:

- Jabetzen da bere errealitateaz eta hurbilean geratzen denaz: lagunak, ikaskideak, familia...
- Kritikoki egiten du gogoeta, alderdi positiboak eta negatiboak adierazten ditu, eta hobekuntzak proposatzen ditu.
- Irakaslearen babesean, protagonistekin batera sentitzeko gai da.
- Hobetzeko proposamenak egiten ditu, eta modu autonomoan argudiatzen.

➤ 9.6. azpigaitasuna: Behartsuen alde egitea. Arrazionaltasunean eta esperientzian oinarrituta, pertsona guztien balioa eta duintasuna aitortzea, eta, modu autonomo eta kontzientean, behartsuen aldeko hautua egitea.

Lehen Hezkuntzarako adierazleak:

- Irakaslearen laguntzarekin, bere buruari aitortzen dizkion balio eta duintasun berberarekin errespetatzen ditu besteak.
- Laguntzarekin, inguru hurbilean dituenei bere buruari bezainbesteko balioa eta duintasuna aitortzen die.
- Laguntzarekin, kultura minorizatuen eta pertsona pobretuen aberastasuna aitortzen du.
- Besteak beste lekukotzen, elkarrizketen eta erakusketen bidez, beste inguru batzuetako pobrezia ezagutzen du, bai eta egoera horiek konpontzeko antolatutako hainbat ekintza ere.

DBHrako adierazleak:

- Bere buruari aitortzen dizkion balio eta duintasun berberarekin errespetatzen ditu besteak.
- Bestearekiko errespetua lantzen du inguru hurbilean.

